



ARGIA

ZARAUZKO SEGADA, 1976

***Ez egiarik, ez justiziarik
tirokatutako
bi langileentzat***



Guardia Zibilak Felipe Suarez
eta Federico Astilleros hil eta
zauritu zituen hurrenez hurren,
Zestoarako errepidean.



Emun kooperatibak

25 urte

34 | GIZARTEA



**Harreman-anarkiaz
elkarritzeta**

38 | SANDRA BRAVO



LARRUN #279
Polizia ereduaz



Imajinatu duzu
sare sozial bat **zure**
datuak jaten dituen
muskerrik gabe?

Meta-negozioa
egiteko asmo barik?

Guztiona den sare
sozial bat, **librea,**
euskalduna,
deszentralizatua?

Utopia klik
batekin hasten da.



Sortu kontua
mastodon.eus
edo **mastodon.jalgi.eus** helbideetan.

Jarraitu  **ARGIA** sarerik askeenean.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | SONIA GONZALEZ
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 21 | CASTILLO SUAREZ
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTA:
OLATZ AIZPURUA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILAN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO

14 | **OBULUEKIN KLINIKA PRIBATUEK EGITEN DUTEN NEGOZIOAZ ELKARRIZKETA**

Anna Molas elkarrizketatu du Danele Sarriugartek. Molasek tesia egina du Espainiako Estatuko obuluen negozioaz. European obulu emaille gehien dauden estatua da eta nazioartetik obulu bila etortzen dira emakumeak. Hau lotuta dago obulu emaillearen prekaritatearekin, jatorriarekin eta legediarik laxoena izatearekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Klima larrialdia: autoktonoen jakintzak kontuan hartzea genuke aterabide segurra

Jenofa Berhokoirigoin

24 | POLITIKA | 1976, ZARAUTZ

Felipe Suarez eta Federico Astilleros Guardia Zibilak tirokatuak

Miel A. Elustondo

34 | GIZARTEA | EMUN-EK 25 URTE

Tailerrak euskalduntzetik, gai sozialetan eragitera

Jon Torner

38 | FEMINISMOA | HARREMAN ANARKIA

“Aspergarria da pentsatzea harremanak antolatzeke modu bakarra dagoela”

June Fernández

46 | KULTURA | BTN2022 AGIN LABURU

“Gaiak nondik heldu eta zein tonu eman bilatzen dut”

Eli Pagola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Inposatzeko eskubidea

Espainiako Gobernuak, bere buruari Jendearen Gobernu deituak, Guardia Zibilaren bitartez debekatu egin die Baztango 14 udalerriei herri galdeketa egitea, hango ordenantzek hala ahalbidetu arren. Krisi anizkoitzaren garaitan, ingurumenari kalte zuzena eragiten dien proiektuak biderkatzen ari dira munduan barrena, eta sarri herritarren gehiengoaren kontra, Baztango Erdizko lurak okupatuta enpresa batek eraiki nahi duen harrobia kasu. Talka horiek saihesteko bidea EAEko 'Tapia Legeak' erakusten du hobekien: herritarren edo udalen iritzia ez du deus balio, botere-piramidean gorago dauden agintarien erabakiarekin ez badu bat egiten. Zeinek ditu hitza eta erabakia? Lur horietan egunero bizi diren herritarrek ala lau urtean behin hautatutako politikariek? Dema unibertsal hori Baztanera heldu da. Berrir. Orain gutxi, Aroztegia bizirik!-ek bidea erakutsi zuen eta.

📷 Igandean 750 bat lagun elkartu dira Elizondan "Iritzia eman nahi dugu" lelopean. **ANDONI CANELLADA / FOKU**

✂️ **AXIER LOPEZ**



Beldur eta kontrolaren aurrean, justizia feminista

ERREDAKZIOA

Beldurra eta kontrolaren aurrean, justizia feminista" leloa hautatu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, aurtengo azaroaren 25erako. Aurreko urtetik gaur arte egoera ezer gutxi aldatu dela eta indarkeria matxistak bere horretan jarraitzen duela azpimarratu dute.

"Gizonak, utzi erasotzaile izateari eta konplize izateari. Hartu egoerak eskatzen duen ardura eta erantzukizuna"

"Indarkeria matxistak hamaika forma har ditzake, eta etengabe mekanismo ezberdinak jartzen ditu martxan indarkeria hori aplikatzeko. Ikusi besterik ez dago, pasa berri den udaran, batez ere jai giroan jasandako eraso matxisten harira gertatutakoa; kontrol sozial etengabea, beldurrean oinarritutako mezu eta neurriak, poliziaren presentzia neurrigabea... eta dena, berriz ere fokua emakumeengan jartzeko. Esan dezakegu sistema heteropatriarkal kapitalista are modu gordinagoan azaleratu zaigu-



EH-KO MUGIMENDU FEMINISTA

la. Esplizituki, inongo lotsarik gabe. Jakin badakigu, feministok sortzen dugun olatu bakoitzean, sistemak olatu horiek gelditzeko mekanismoak jartzen dituela martxan eta, aurrean ere, ez da gutxiagorako izan", kritikatu du mugimenduak.

Hala, kalera ateratzera deitu dute, "indarkeria instituzionala, lan esparruan jasaten duguna, etxean jasaten duguna, heteroarautik ateratzearren jasaten duguna..." salatzeko.

URTEAK BORROKAN

"Urteak daramazkigu indarkeria horiei guztiei aurre egiteko antolatzen eta borrokatzen. Badakigu hori dela bidea; gure arteko sareak eraiki, elkar zaindu,

borroka komunak martxan jarri, ardurak hartu, gizonak interpelatu eta sistema errotik aldatzeko bideak eraiki. Autodefentsa feminista da horretarako dugun tresna eraginkorrena eta antolakuntza feministaz boteretuko gara".

Fokua gizonengan jarritz amaitu du irakurketa mugimendu feministak, gizonen dagokien ardura hartzeko exijituz: "Utzi erasotzaile izateari eta konplize izateari. Hartu egoerak eskatzen duen ardura eta erantzukizuna. Azaleko diskurtsoek ez dute balio praktikan ezer ez bada aldatzen".

Manifestazio, mobilizazio eta deialdi ugari daude deituta Euskal Herrian, azaroaren 25 honen bueltan. ●

AZAROAK 25

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna



OÑATI
dabilen herria

Kontrolatzen bazaitu...



Elkarriak



Sare sozialak



Arrapa



Dirua



Harremanak



Denbora

...INDARKERIA MATXISTA DA

MATERIALISMO HISTERIKOA

Aspaldiko partez



UXUE APAOLAZA LARREA

Lentejuelazko soineko arrosa bat daramat motxilan, paperezko poltsa zimurtu batean. *Tribunaleko* metro ahotik irten eta erakusleihoan ikusi dudana (probatu eta dantza gogoia jarri dit) Fuencarral kaleko jende andanari batu aurretik.

Pérez Galdosen *Recuerdos y memorias* (gainera, ataletako bat *Recuerdos de Madrid* sorta da; gaur nik erosteko idatzi zuen), Elisenda Juliberten *Hombres fatales* eta, umearentzat, *Diccionario por imágenes del mar*. Moyanoko aldapatik daramatzat, horiek eta hainbat elkarrizketa-zatiren heldulekua, hainbat irribarre konplizeren fereka. Abaniko arrosa bat ere badaramat umearentzat, Rastroan eresia.

Metroko 10 bidaiako bonoa, gastatu gabe: berriro urteak pasa aurretik itzultzeko promesa bat. Gran Vía-ko banku batean jandako pizzatik sobratutako zati bat (ez zegoen lekuri Luna Plazaren ondoan nik nahi nuen txinatarrean). Oraintxe jango dudana treneko kafetegian. Madrilgo zeruaren argia. Nire memoriarik gabeko ehundaka begiradaren kilimak begietan.

Goiz bat pasa dut Madrilen, zereginetik zereginera sortu den hiruzpalau orduko soilgune bat. Memoria luzedun etxera bidean noa trenez, hiru ordu ditut oraindik, bakarka, irakurtzeko.

Aspaldiko partez, ni dirudit berriro. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Euskara

UEMAk aurkezturiko txostenaren arabera, euskararen erabilerak herri euskaldunenetan izan du galera handiena: etxeko erabilera %81 izatetik %59 izatera igaro da 30 urtetan. Aztertzaileek giturazko neurriak exijitu dituzte.

Kutsadura

Haragia eta esnea modu intentsiboan ekoizten duten hamabost enpresak ia Europar Batasunak bezainbeste metano isurtzen du, ikerketa baten arabera. Gobernuak eskatu diete enpresa handiei mugak jarri eta metanoaren isuriak %30 murrizteko akordioa errespetatzeko.

Erraustegia

Donostiako Zubietako erraustegiak hiru urte bete ez dituenean, jada inguruko aire, lurzoru, ur eta landareak kutsatzen ari da dioxinaz eta bestelako gai toxikoz. Hala erakutsi dute bai ToxicoWatch fundazioaren azterketak, bai erraustegiaren jabeak eskaturikoak.

EKONOMIA

Horrela jarraituz gero, etorkizun oparorik ez



AINHOA ETXAIDE
AMORROTU

Duela gutxi Confebaskek esan du 400.000 langile beharko direla –edo dituela– datozen 30 urteetan gaurko oparotasunari eutsi ahal izateko. Eta immigrazioan jarri du fokua oraingoan. Esku lanaren premia asetzeko bada eta “atzerritartasun legeak” hiruugarren mailako langile egiten dituela ziurtatuz, posiblea ez ezik, beharrezkoa izango omen da mugak irekitzea.

Adierazgarria da datorren urtean ekonomiarekin zer gertatuko den jakiterik ez dagoela esaten digun berberak, 30 urte barru zenbat enplegu egongo den zalantzarik gabe iragartzeko gaitatea. Digitalizazioa, deskarbonizazio prozesua, energia krisiak dakartzan gatazkak eta nazioarteko komertzioan zuzenean eragiten duten mundu mailako tentsioak, lanaldiaren iraupena eta antolaketa, aldaketak demografikoak sortuko dituen errealitate berriak... Horiek eta gehiago dira gaur bizi-bizi dauden prozesuak. Zer, zenbat eta nola ekoizten den Euskal Herrian birplantatzea, zaintzak ziurtatzeko sistema oso bat antolatzea, produktibitate mailak ahalbidetzen duen lanaldiaren murrizketa sakona, bizi kalitatea hobetzeko funtsezkoa den lanaldiaren berrantolaketa... Horiek, besteak beste, martxan diren eta lan merkatuan eragingo duten borroak.

Confebaskek argi du jubilatzeke adinera iritsiko garela asko eta asko. Izan dadila pentsio duin batekin! Eta aditzez ematen du bere aurreikuspenak 30 urte barru balio izango duela ez garelako gaitate sistema hau aldatzeko. Hori ikusteko dago, garrantzitsuena ekuaziotik kanpo utzi baitu: ez dugula etorkizunik gaurko oparotasunari eutsiz gero. ●



SEDAT SUNA

Klima krisiaren kalteak ordaintzeko funts bat

LEIRE ARTOLA ARIN

Egiptoko NBERen COP27 goi-bilerak ez du aurrerapauso esanguratsurik lortu, baina klima larrialdiaren ondorioen aurrean “herrialde zaurgarrienek” dituzten kalteak ordaintzeko funts bat eratzea adostu dute, eragile sozialen urteetako eskariari erantzunez. Ez dituzte hitzartu gainerako auzien konponbideak, hala nola erregai fosilei eta berotegi gasen isuriei dagozkienak.

Azaroaren 19an itxi dute akordioa herrialdeek, azken egunetan blokatuta zegoena ezadostasunen ondorioz. Hitzarmenaren puntu nagusia txalotu dute eragile ekologistek, eta azpimarratu dute mugimendu sozialen presioari esker lortu dela herrialde pobretuen urteetako eskariari erantzutea: klima krisiaren hondamendiek gehien kaltetzen dituzten “herrialdi zaurgarrienei” zuzendutako funts bat, kalteak eta galerak ordaintzeko.

Greenpeace taldeak nabarmendu du “justizia klimatikoaren hasiera” dela funtsa eratzea, eta herritarren garaipena dela, baina ohartarazi du ez dela nahikoa: “Ez bada berehalakoan baztertzen erregai fosilen erabilera, ez da munduan diru kantitate nahikorik egongo ordaintzeko galeren kostuak eta kalteak”.

Bada, COP27ko akordioan ez dute erregai fosilak alde batera uzteari buruzko erabakirik hartu, ezta berotegi gasen isuriei dagozkienik ere. “Akordioak ez du inolako aurrerapausorik klima aldaketa txikitzeari dagokionez, Glasgowko COP26arekin alderatuta”; Ecologistas en Acción taldeak “onartezintzat” jo du “urte-bete galdu izana” klima krisiari aurre egiteko borrokan.

FUNTSAREN INGURUAN, GALDERA ASKO

Funtsera bueltatuz, ez dute zehaztu nork jarriko duen dirua, ezta zenbatekoa izango den ere. Hitzartutakoaren arabera, “garabidean dauden herrialdeek” eskatu ahalko dute kalte ordainetarako diru hori. Kontua zera da, “garatutako herrialdeen” eta “garabidean dauden” sailkapena NBERen Klima Aldaketari Buruzko Hitzarmenean erabaki zutela, 1992an. Horren arabera garabidean dauden herrialdeak dira, besteak beste, Qatar, Saudi Arabia edota Kuwait, hirurak petrolio ustiatzaileak. Txina ere garabidean dauden multzokoa da, eta atmosferara CO2 gehien isurtzen duen herrialdea da, baita munduko bigarren ekonomia indartsuena duena ere. Beraz, zalantzakoa da nor den zaurgarriena klima larrialdiaren aurrean.

Gainera, funtsaren eraginkortasuna ikusteko dago. Izan ere, 2015ean sinatutako Parisko Hitzarmenean adostu zuten klima trantsizioa egiteko pobretutako herrialdeentzako funts bat sortuko zela, urtean 100.000 milioi dolar emango zituen. Orain arte, guztira 80.000 milioi baino ez dute bildu eta bide beretik joan liteke oraingo funtsa ere. ●

73,3 milioi

eurogatik erosiko ditu Donostiako Udalak Loiolako kuartel militarren lursailak, Espainiako Defentsa Ministerioarekin akordioa lortu ostean. Militarrek beste lau urtez bizi ahalko dira kuartelean; ondoren, 1.500-1.700 etxebizitza egitea aurreikusi du udalak.

391 milioi

dolarreko zigorra ezarri diote Googleri, Android eta iOS gailuen ezarpenetan Googleri geolokalizazio daturik ez ematea espresuki hautatuta ere kokapena eskuratzen jarraitzen zuelako.

72 milioi

euroko akordioa sinatu dute Frantziak eta Erresuma Batuak, lehenengo herrialdetik bigarrenera doazen migratzaileak Mantxako kanalean eteteko. Akordio berriak %40 handituko ditu Frantziako kostaldeak kontrolatzen dituzten mugako patruilak.

“Zinemetan tamalgarria da egoera: eskaintza osoaren %1 baino ez da euskaraz”

MITXEL ELORTZA

Pantailaldia ekimenaren Arabako ordezkaria.

ARGIA.EUS (2022-11-18)



“BANKU GUZTIAK ARI DIRA FUNTS PUTREEI SALTZEN, PREZIO IRRIGARRIETAN. HIPOTEKATUTAKO JENDEA ATERATZEN DA GALTZAILE”

STOP KALERATZEAK

Plataformak agerraldia egin du Eusko Jaurilaritzan, Kutxabankek gauzatutako hipoteka-maileguen salmenta salatzeko.

2022-11-15

“Euskaraldia elkarlanean egiten den egitasmo erraldoia da, baina zuek zarete herrietan, bailaretan, auzoetan euskarari hauspoa ematen diozuenak”

IÑAKI SAGARDOI

Euskaraldiaren Nafarroako koordinatzailea.

2022-11-18



Homodata



DIANA FRANCO

Asteburu honetan kanpoan geratu naiz, talde batekin jarduera batean parte hartu ondoren ordainketa tartea etorri denean eta denek ulertu dute-nean Bizum aplikazioa ordainketa modu bezala, nire kasuan izan ezik. Bizum, mugikorraren bitartez ordainketak egitea baimentzen duen aplikazioa da, Espainiako Estatuan 2016an lortu zen bankuen arteko akordio bati esker. Dirudienez, diru fisiokoaren aukera eskaintzea eta kontrolatzea bankuentzat garestia da eta likideziaren kontrola eta kostuak murrizteko aukera bihurtu da Bizum. Herritarrei begira, erabilera sustatzeko estrategiak hiru izan dira: lehenengoa, doakoa izatea; bigarrena, ordaintzerako orduan dirurik ez dugula jada ez dela aitzakia; hirugarrena, kanpoan geratzen zaren pertzepzioa handitzea, talde presioaren bitartez. Askori gauza bera gertatzen zaigu Whatsappparekin.

Zenbait gauza pentsatzera eraman nau gertaturikoak. Digitalizazioak harremanetan esku hartzeak dakar dugun gizartea eraginkorragoa bihurtzea. Bizitzak errazteko eta eraginkorragoak egiteko promesa dakar esku-hartze horrek. Pertsonen arteko komunikazio dinamikan txertatuta dago, ezagutzak eta edukiak kontsumitzeko dinamikan, ordaintzeko dinamikan, sortzeko dinamika askotan, naturaren baliabideak kudeatzeko dinamikan, bikotekideak izateko dinamikan, etxeko gailuak kontrolatzeko dinamikan...

Asteburu honetan, kanpoan geratu naizenean, homosapiens eta neanderthal hominidoen arteko elkarbizitza tartea etorri zait burura. Eskolan kontatu ziguten neanderthalak ez zirela egokitu, eta homosapiensak bagenituela beste harreman dinamika batzuk zeintzuek neanderthalen espeziea atzean utzi zuten, baztertuta desagertu arte.

Pentsatu dut, egun, "homodata" bihurtzen ari garela zentzu askotan, harreman guztiak datutan adierazi ditzakeen hominido bihurtzen ari garela. Izan ginena eta mundua ulertu genuen modua aldatu egin da, berriz ere. ●



Izugarri aberatsen ekarpen kutsakorra

AXIER LOPEZ

Historiak zerbait frogatu badu, hori da gizakiak beste gizakien sufrimenduekiko enpatia selektiboa da. Oso. Orokorrean gertuago daukagunak gehiago eragiten gaitu urrun zaigunak baino. Baina oinarrian dagoena urkoak bizi duen egoeraren gaineko ezjakintasuna izan ohi da. Hau da, gehiago ala gutxiago identifikatzen gara ala geure egiten dugu besteen mina edo poza, horien inguruan dugun pertzepzioaren arabera.

Horregatik, askoz ohikoagoa zaigu entzutea auzora etorri den Saharaz hegoaldeko migratzaileak "gu baino merkeago egiten duenez lan, guztion lanpostuak prekarizatu dituela", baina, aldiz, herrialde beretik etorritako gaztea, gure futbol talde kuttuneko golak sartzen dituen urtean 3 milioi euroren truke, putoamoa da. Proiektzio mediatikoa eta enpatia, klasismoa/arrazakeria bikoteari gailentzen zaie, are gehiago proiektzio publiko hori joera klasista eta eurozentrikoa duten hedabideek sortutakoa bada nagusiki.

Horregatik, Oxfmanek berriki zabaldu duen moduko albisteek ez dute inolako ondorio praktikorik izaten: "Milioi asko dituztenen bizimoduak eragiten dituzten CO2 emisioak, haien jet pribatu eta yateekin, batez beste herriar batenak baino milaka aldiz altuagoak dira". Egiptoko Sharm El Sheij hirian Nazio Batuen Erakundeak antolatu duen Klima Aldaketari

buruzko COP27 konferentziaren harira zabaldu du ikerketa GKEak.

Horrelako albisteak gehien jota titular morbosoa izatera heltzen dira, baina, batez ere, ez dute ondorio praktikorik. Eta ez da hala izaten erakunde politiko eta ekonomiko nagusien agente postuetan daudelako milioi asko dituzten beste pertsona batzuk edo izugarri aberatsen interesekin bat egiten duten politikariak. Ez bederen horregatik bakarrik. Kapitalismo globalaren totem horien existentzia ezbaian jartzeak, merkataritza askea, jabetza pribatua edo "enpresariak sortzen dituzte enplegua eta aberastasuna" bezalako gai delikatuak birplanteatzera eramango gintuzke.

Krisi anizkoitzean murgilduta dagoen mundu honetan, horien artean krisi ekologiko sakonean, munduko 125 pertsona aberatsenen -gehien-goia, gizon zuriak- inbertsioek - 2.400.000.000.000 milioi dolar- 393 milioi tona karbono dioxido (CO2) eragiten dituzte urtero, gizateriaren %90ak baino milioi bat aldiz gehiago. Hori perbertsioa izateaz gain, delitua beharko luke. Baina horretarako, agian, aurrena birplanteatzen hasi beharko genuke zergatik dakigun hainbeste dirudunen bizitzaren inguruan, gehiengoarena ez den bizimoduaren inguruan, arrakastatzat saldu diguten horiek zergatik diren langile klaseak ikusten dituen telesail, film eta albistegien protagonista nagusi. ●

Qatar 2022, eliteko kirolaren iparrorratza

 JON TORNER ZABALA

Abian da gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketa, Qatarren. Us-
telkeria zantzuak, estadioak eta
bestelako azpiegiturak eraiki-
tzen aritu diren milaka obreroren herio-
tza, emakumeen eta LGTBI kolektiboaren
kontrako jazarpena, ingurumen inpak-
tua, zentsura, futbol-egutegiaren altera-
zioa... Dena ez da urre eliteko futbole-
an.

Sobera motibo daude Munduko Ko-
paren aurka agertu eta, oro har, eliteko
kirolak urteotan hautatu duen norabi-
dea salatzeke. 2010eko abenduaren 2an
iragarri zuen FIFAk 2022ko edizioa Qa-
tarren jokatu zela, eta ordutik –baita
lehenagotik ere– lotsarik gabe erakutsi
du zein bide hobetsi duen.

2008an Arabiar Emirerri Batuetako
ADUG inbertsio funtsak Manchester City
futbol taldea erosi zuen; 2011n Qatarre-
ko QSI-k Paris Saint-Germain, Espainia
eta Italiako superkopak Arabiar Emirerri
Batuetan jokatu dira; Qatar Airways kon-

painiak babestu ditu PSG, Bartzelona eta
Municheko Bayern bezalako klubak. Eta
futboletik harago, 2016-17tik Bahrein eta
UAE Emirates txirrindulari taldeak maila
gorenean ari dira, 2022an Liv Golf zirkui-
tu profesionala sortu du Saudi Arabiako
inbertsio funts publikoak, Nasser Al Khe-
laifi enpresariak –PSG eta beIN Sports
telebista katearen jabeak– Premier Padel
zirkuitua sortu du, 2020tik Paris Dakar
auto lasterketa egiten da Saudi Arabian,
Formula1-eko karrerak, Moto GP zirkui-
tukoak... Nahi beste luza gintezke.

Auto eta moto konpetizioak adierazle
ona dira, jabetzeko zein ekonomiak bila-
tzen duen kirolaren bidez eragin ahalme-
na handitu eta mapa geopolitikoan posi-
zionamendu hobea lortzea. Eta urteotan,
ikusten ari gara petrodolarrek direla
erregai nagusietakoa, Saudi Aramco eta
Qatar Petroleum bezalako multinazional-
en irabazietatik eratorria. Honek guztiak
erakusten du egiaz zein partida jokatu

den egunotan Qatarren, Ukrainako krisia
dela-eta gasaren merkatuan jokalaria ga-
rrantzitsuena bilakatu den herrialdean.
Eta etorriko direnak: 2029ko Asiako Ne-
guko Jokoak Qatarren egingo dira, eta
jada iragarri du etorkizunean Neguko
Joko Olinpikoak hartu nahi dituela.

Aipatutakoek gizarte eragile ugari-
ren protestak eragin dituzte, baita kirolari
batzuen eta futbol klubetako zaleena
ere, eta irudipena daukat, agian, Qatarre-
ko Munduko Koparen aurkako mugimen-
duaren oinarrian, diktadura batean ospa-
tzetik harago, eliteko kirolak hartu duen
norabidearen gaineko haserrea dagoela.
“Kirola ezin da politizatu”, adierazi zuen
Frantziako presidente Emmanuel Mac-
ronek pasa den astean, Munduko Kopaz
galdetu ziotenean. Herritarrak baboak
direla uste dute, futbolaren aitzakiarekin
etengabe sartuko dizkigutela hankape-
tik golak. Egia da horretarako motiboak
eman dizkiegula, baina... ●

Aurrekaririk gabeko heriotzak Qatarren

 = Hildako langileak

Pekin

2008ko Olinpiadak



Vancouver

2010eko Olinpiadak



Hego Afrika

2010eko Mundu Kopa



Londres

2012ko Olinpiadak



Brasil

2014ko Mundu Kopa



Sotxi

2014ko Olinpiadak



Iturria: The Guardian

Qatar

2022ko Mundu Kopa (oraingoz)



KLIMA LARRIALDIA: AUTOKTONOEN JAKINTZAK KONTUAN HARTZEA GENUKE ATERABIDE SEGURRA

COP27 gailurra iragan berri da Egiptoko Xarm el-Xeikh hirian. Ikuspegi mendebaldarra nagusitu da, beste behin, eta erabakiak araberaokak ditugu. Herri autoktonoen ahotsa entzunarazteko leku ttipia bideratu arren, haien ekarpenak ez dira kontuan hartuak. Alta, 5.000tik gora kultura ezberdin eta 476 milioi herritar horiek –Europarren kopuru bertsua– osagai inportantea dute partekatzen: naturaren errespetua eta ingurunea integratzen duen ikuspegi holistikoa. Ingurumenari eta bioaniztasunari begira mendeetan zehar garaturiko jakintza mamitsua izanik, gogoetan integratzeko deia luzatu berri du GIEC Klima Larrialdiari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Oihanaren ahotsa eta Amazoniako bizidun guztien ahotsa dakarzikit”. Brasilgo Huni Kui herri autoktonoko ordezkari Ninawa Inu Huni kui Pereira Nunesen hitzak dira, Egipton burutzen dabilzan COP27 gailurrean zabaldukoak. Klima aldaketaren erronkaz hausnartzerakoan ezberdintzen diren diskurtsoa, postura eta mundu ikuskerak dakarzki berekin. Baina ez du berak bideratzen dantza, gutxiengoan da, eta ikuspegi antropozentriko hegemonikoa dauka parean, erabat aurkako norantzan doana. Lastima, bestela balitz, ezberdin irudikatzen ahalko genukeelako geroa, eta krisi klimatikoaren panorama.

GIEC Klima Larrialdiari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak otsailean plaza-raturiko txostenak nabarmentzen ditu herri autoktonoen gaitasunak eta jakitateak: “Mendeetan zehar aurre egin diote adaptazioaren erronkari eta ingurunearen aldaketei egokitzeko erresilientzia estrategiak garatu dituzte. [Klima larrialdiari] egokitzeko indarrak aberastu eta elikatu ditzakete”. Egiaztapenari beste ideia inportante bat gehitzen dio zientifikoek taldeak: herri horien autodeterminazioa eta beraien eskubideen aitortza bermatu behar dira klima larrialdiari aurre egin nahi baldin badiogu.

Indigenen ordezkari diren hamarnaka egiturek –orotara 1.600 milioi hektarea lurretan banaturikoak– begi onez

hartu zuten adituen babesa: “Azkenean mundu mailako zientifiko famatuenek aitortu dute guk aspaldian genekiena”. Bioaniztasunaren zaintza eta “iraunkortasunean oinarrituriko lurren eta oiha-nen kudeaketa” direla eta, badakite krisi ekologikoari aurre egiteko aterabide batzuk dauzkatela: “Babesa izanez gero, bide beretik segitzen ahalko genuke”. Babesa, autodeterminazioa eta lurraren eskubidea bermatzetik iragaiten da, hori gabe “zaurgarri” direlako agroindustriaren, meatze-sektorearen eta azpiegitura erraldoien parean.

“BIKTIMAK BAINO GEHIAGO GARA”

Klima aldaketaren talka bortitzena jasotzen dutenen artean dira indigenak. Alta ez dira CO2 isurketen edota bestelako kutsaduren oinarrian. Hala eta guztiz ere, biktimaren posturara mugatze hori ez du begi onez ikusten Siila Watt-Cloutier inuitak, eta aterabideak adosten diren mahaira gomitatzeke garaia dela uste du, *Radio Canada* irradian egindako elkarrizketan entzun daitekenez.

Baina hainbat erronka ekarriko lituzke mahaiaren partekatzeak, bidean aitzina egiteko betetzea ezinbestekoak liratekenak: Elkar ulertzearena –hitzez harago, mundu-ikuskerak kontuan hartuko lukeen ulerkera kausitzea–; arbasoen eta oraingoaren jakintzak ikuspegi antropozentrikotik babestearena, ma-

nipulaziorik ez izateko gisan; eta nola ez, ikuspegi holistikoa kontuan hartzeak dakarren deseraikitze ariketarena. “Elkar ulertzen saiatzen gara, gure jakintzen ulermen handiagoa izateko gisan. Baina hasteko, autoktonoen jakintzen definitze ariketa gure esku uztearekin hasi beharko lukete...”, dio antropologo inuit Lisa Koperqualukek *Radio Canada* irradian.

Hots, ikuspegi koloniala deseraikitzeke behar gorria dago klimaren esparruan ere. “Kolonialismo berdeaz” ari da *Reporterre* komunikabidean irakurri daitekeen “*Il faut décoloniser notre approche de la nature*” (“Naturaz daukagun ikuspegia dekolonizatu behar daukagu”) elkarrizketan antropologo den Fiote Longo: “Jarrera horren atzealdean dagoen ideologia arrazakeriaren atzealdean dagoenaren bera da, beraien ingurunea benetan kudeatzeko gaitasunik ez daukaten herri gisa kontsideratuak dira”. COP27 bezalako guneen dekolonizatzea ikuspegi aldaketatik ere pasako da, nagusi diren Iparreko herri aberastek, haien multinazional eta hurbileko lobbyek ez dutelako indigenek oinarrian dituzten ikuspegi eta helburuak.

Horri dagokionez, merezi du begirada Kanada alderantz bideratzeak, elkarrekiko aitortzan eta elkarlanean aitzina egiteko nahikaria dutelako; poliki-poliki eta arreta handiz bada ere –autoktonoen



HIRU BEGITAKOA

Inguruko bioaniztasuna errespetatuz osatzen dute haien bizia indigenek –argazkiko inuitaren gisa–. Ikuspegi hori kontuan hartzekoa da klimaren erronkari begiratzeko orduan. Hirugarren begi bat gehitzen die Myrle Ballard inuitak ikuspegi autoktono eta mendebaldarrari: hitz egin ez dezaketen bizidunen ahotsa ordezkatzeko lukeena.

desagerrarazteko prozesu bortitz eta estrukturala ukan duen lurraldea izanik, zauria irekita delako oraindik–. Besteak beste, ingurumena eta klima aldaketari buruzko DSA Zientzia Autoktonoaren Adarra dabil ekarpenak egiten.

HIRU BEGIDUN IKUSPEGIA


Egitura gaztea da, aurtengo urtarrilean sortutakoa, eta esparru zientifikoan ere autoktonoen eta kolonizatzaileen ondorengo artean bakerako eta erreparazioarako urratsak emateko sortu zuten. Myrle Ballard unibertsitari autoktonoak landuriko “hiru begidun ikuspegia” garatzeko asmoarekin dabilta, batez ere klima aldaketaren desafioa gainditzeko erronkan.

Orain arte ezagunagoa dugu bi begidun ikuspegia, jakintza zientifiko autoktonoa eta mendebaldarra juntatzen dituen. Hirugarren bat gehitzen dio postura berritzaile horrek: “Autoktonoen ikuspegiari gehitzen zaio ‘harreman guztien’ izenean hitz egiteko ardura. Autoktonoen mundu ikuskeran diogu zuzenean lotuak garela lurrari, urari, landareei, abereei eta horiek ezin badute hitz egin, orduan, guk badaukagula horien hitza zabaltzeko ardura. Horregatik gara hirugarren begiaz/ahotsaz mintzo”.

Baina ez hiru ezta bi ere, ikuspegi mendebaldarra nagusitu da COP27an. Guztia deseraikitze beharra begibistakoa gelditzen ari zaigu eta nonbait,

Fiore Longoren ondoko esaldiak berresten digu bidea: “Ez da egia gizakiak due la natura suntsitzen. Mendebaldetarron bizi-sistema da suntsitzailea, baina beste jendarte batzuk ere badaude. Bioaniztasunaren %80 herri autoktonoen lurraldeetan da”.

Mundu mailan 476 milioi autoktono dira –Europar Batasuneko biztanleriaren heina guti gora behera–, guztira 5.000 kultura ezberdin, munduaren mapa ofizial hegemonikoko 90 estatutan kokaturik. Anitzak eta ezberdinak izan arren, guztiek dute ingurumenarekilako ikuspegi eta begirune bera. Mendebaldetarron begia doi bat itxi eta besteari lekua egitea bihurtuko zaigu bide bakarra, laster. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Anna Molas

UGALKORTASUN-NEGOZIOA AZTERGAI



HARREMAN ZUZENA DAGO LAN-MUNDU PREKARIOAN SARTZEKO ZAILTASUNEN ETA OBULUAK EMATEKO ERABAKIAREN ARTEAN



Ba al zenekiten batzuek sekulako negozioa egiten dutela Espainiako Estatuan obuluen donazioarekin –Europako burua da arlo horretan–? Nik neuk ez nekien: Anna Molas antropologoari esker deskubritu dut, duela gutxi, Emagin elkarteak antolatutako “(Ez)Amatasunak Ikuspegi Feministatik” jardunaldietan. Hitzaldiaren ostean galdera batzuk egin nizkion Molasi, gaian gehiago sakondu nahian.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

Espainiako Estatuko obulu-donazioaren bioekonomia ikertu duzu zure tesian. Nolatan hasi zinen gaia lantzen?

Antropologiako masterra egiten ari nintzen Bartzelonako unibertsitatean; tesirako gaia aukeratu behar nuen, eta lan bila nenbilen aldi berean. Ikasketak egin bitartean lana egin izan dut beti, beste askok bezala. Laboris izeneko webgune batean izena emanda nengoen, eta nire curriculumaren arabera eskaintzak bidaltzen zizkidaten. Behin batean mezu bat iritsi zitzaidan, gaiak

honela zioen: Obulu-donazioa, ordain-saria [azken hitza letra larriz]. Asko eragin zidan. Banekien donazioa existitzen zela eta dirua ordaintzen zutela, baina enplegu-webgune batetik halako zerbait iristea, lan-premian nengoen une batean... Haserretu egin nintzen, eta txio bat ere egin nuen. Laborisekoek erantzun zidaten ez zela lan-eskaintza bat, publizitatea baizik, baina noski, publizitate hori iritsi zitzaidan emakumea nintzelako parametro batzuetan. Publizitate horren jomuga izan nintzen, eta asko pentsarazi zidan.

Mezu hori iritsi zitzaion jende guztia etorri zitzaidan gogora. Banuen tesi-rako gaia.

Gertaera esanguratsua da oso. Eta bat dator zure azterlanean deskubritu duzunarekin.

Bai, erabat. Arlo honetan, altruismoaren diskurtsoak baditu funtzio batzuk, baina obulu-emaileei elkarrizketak egiten hasi bezain laster berehala agertzen da behar ekonomikoaren kontua [donazio baten truke 1.000 euro inguru ordaintzen dituzte klinikak].



Anna Molas Closas

BARTZELONA, 1991



Antropologoa eta ikertzailea. Australiako Monash unibertsitatean egin zuen tesia, eta iaz amaitu zuen: obulu-donazioaren bioekonomiari buruzko ikerketa etnografiko bat, Espainiako Estatuko kasuari buruzkoa. Gaur egun Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan dihardu, osasun perinatalaren eta plazenta artifizialaren teknologiak aztertzen. Duela gutxi beka bat jaso du, tesia liburu-formatuan argitaratzeko, eta saiakera erako lan ez hain akademiko bat egiteko asmoa ere badarabil buruan.

Hain zuzen ere, obulu-emaileen esperientziak bildu dituzu. Zer aztertu nahi zenuen zehazki?

Nire tesiko galdera hau zen: nola dago antolatuta hau guztia Espainian hainbeste donazio egon daitezen eta Espainia izan dadin Europako ugalkortasun-industria nagusia? Zer ari da gertatzen? Batetik, obulu-emaileak elkarriketatu nituen; bestetik, ugalkortasun-kliniketako langileak. Gainera, behaketak ere egin nituen klinika batzuetan, eta haien webguneak aztertu: zer azaltzen zuten, zer ez, zer irudi ematen zuten prozedurari buruz... Laburbilduz, nola orkestratzen den guztia bioekonomia hau aparretan egoteko.

Egia esan, ni neu harrituta geratu naiz industriaren neurriarekin. 18.000 lagunek jotzen dute urtero Espainiako Estatura beste herrialde batzuetatik obulu-donazioen bila. Zer faktorek eragiten dute horretan?

Lehenik, Europako kontinentean, erreproduktzio lagunduari lotutako legerik laxoenetako bat dauka Espainiak: ez dago obuluak jasotzeko adin-mugarik (osasungintza publikoan badago muga bat, baina legeak ez du behartzen), eta pribatuetan, adibidez, 50 urteko emakumeei tratamenduak ematen ari zaizkie, eta haurdunaldiak lortzen gainera. Bestalde, obulu-emaile asko dago Espainian. Zergatik? Bada, besteak beste, donazioa anonimoa delako, beste herrialde askotan ez bezala. Horrek emaile-kopurua handitzen du, eta hartzaile askok ere nahiago dute donazioa anonimoa izatea.

Nola aurkitu zenituen obulu-emaileak?

Banekien klinikek ez zidatela horretan lagunduko. Saiatu nintzen, eta bazirudien behin lortuko genuela, baina azkenean ez zen atera.

Klinikek ez dute nahi emaileek hitz egiterik?

Hori ere bai. Baina kliniken barruan emaileak gauza preziatua dira, eta ez dituzte behar baino gehiago gogaitu nahi, askotan errepikatu didate hori. Jakina, klinikek ospea galtzearen beldurra ere badute.

Beraz, zeure kabuz bilatu zenituen elkarriketatuak. Zaila izan zen jendea animatzea?

Kartelak jarri nituen hiriko hainbat lekutan, eta sare sozialen bidez ere zabaldu nuen deialdia. Hortik aurrera, jendeak iragarkia ikusi eta idatziz egin zidan. Ez nituen alde aurretik ezagutzen, eta esanguratsua iruditzen zait, jende askok zeukalako hitz egiteko gogoia. Hala aurkitu nituen 26 elkarriketatuak.

Emaileen artean askotariko profilak egongo dira, baina behar ekonomikoak pisu handia du.

Ordainsari ekonomikoa jende askorentzat izan daiteke erakargarria, noski, eta zentzu horretan aniztasuna dago emaileen artean. Hau da, emaileetako batzuk egoera prekarioan daude, baina agian une batean norbaiten babesa jasotzeko modua izango lukete. Beste kasu batzuetan, egoera oso-oso prekarioak dira. Eta gero jatorriaren faktorea ere hor dago: emaileen % 25 ez da espainiar jatorrikoa, eta hori ere gai inportante bat da. Nolanahi ere, harreman zuzena dago lan-mundu prekarioan sartzeko zailtasunen eta obuluak emateko erabakiaren artean, hori argi geratu da nire ikerketan.

Gaztetasunaren faktorea ere azpimarratu duzu.

Datuek diotenez, obuluak ematen dituen jende gehienak 18 eta 24 urte bitarte ditu. Sektore zaugarri asko daude, baina gazteak oso biztanleria zaugarria dira, adibidez langabezia-tasa eta lanerako sarbidearen datuak begiratzen baldin badira. 2008ko krisiaren garaian oso argi ikusi zen, baina uste dut beharrezkoa dela gazteen egoeraz hausnartzea. Eta oro har obuluak ematen dituen jendea zer egoeratan dagoen serio aintzat hartzea.

Hel diezaiozun baimenaren gaiari.

Gaur egun, obuluak emateko baimena emateaz hitz egiten dugunean, eta jakinaren gainean emandako baimena izan dadin, arazo handi bat dago: oso ikerketa gutxi egin dira epe luze-ralako prozesuek izan ditzaketen ondorioen harira. Eta askoz informazio gehiago egon beharko litzateke, oso praktika normalizatua delako eta urtean 15.000 lagun inguruk egiten dutelako. Beraz, ez badago epe luzeko ondorioei buruzko ikerketarik, ezin du egon jakinaren gaineko baimenik. Badirudi obuluak emateak ez duela



arriskurik: egia da klinikek, gaur egun, kontrolpean dituztela prozedura egin eta berehala sor daitezkeen arriskuak, baina hortik aurrera zer gertatzen den ez dakigu. AEBetan gai hau lantzen hasita daude, eta hainbat ikertzailek adierazi dute aztarnak daudela obulu-donazioa eta minbizi-mota batzuen arteko loturen susmoa izateko. Oso garrantzitsua da hori, halako zikloak 20 aldiz egin dituen jendea baitago; lege ezin da, baina gertatu izan da.

Desinformazioa da beste traba bat, ezta?

Bai, aipagarria da emaille askok ez dakitela zer gertatuko den obuluak eman eta gero. Askok ez dakite zenbat obulu atera dizkieten, edo zenbat laguni zerbitzu emango zaien donazio bakar batekin... Bezeroek zenbat ordaintzen duten interneten aurkitu lezakete, baina askok ez dakite obuluen nazioarteko merkatu bat dagoenik. Hau da, kontuaren dimentsio komertzialaren berririk ez dute.

Uste dut garrantzitsua dela hori ere. Klinikek ez diete informazio hori emango emailleei; aldiz, esango diete ea norbaiti lagundu ahal izan dioten, ea haurdunaldirik gertatu den emandako obuluei esker. Laguntzaren narratiba horiek indartzen dira, eta alde komertzialarekin lotutako guztia, berriz, bazterrean uzten da: horrela, emailleak ez da eragile bat izango, eta, adibidez, ez du diru gehiago eskatuko.

Legez zenbat aldiz eman daitezke obuluak?

Espainiako Estatuko legeak ez du donazio-kopurua mugatzen, pertsona batetik atera daitezkeen haur-kopurua baizik: sei. Baina lege hori 2006koa da, eta ez da oso argia. Praktikan hainbat gauza gertatzen dira. Erreproduktzio lagunduari buruzko lehendabiziko legea 1988koa da, eta emaillearen erregistro nazional baten beharra aipatzen zuen jada. Kontuak kontu, 2019ra arte ez ziren hasi lehen erregistro nazionalaren proba pilotua egiten. Orduan, klinikek, ezer mugatzekotan, donazio-kopurua mugatzen dute, pertsona bakoitzeko sei. Baina, gero jendea joan zitekeen beste klinika batera eta beste sei egin, aurrez bat bera ere egin ez zuela esanda. Azkenaldian ez dut landa-lanik egin, eta ez dakit erregistroaren kontuarekin nola dabilzan.

Elkarriketaz aparte, behaketak ere egin dituzu kliniketan. Zer topatu duzu?

Emaillearen eta klinikaren arteko harremana ere interesatzen zitzaidan, nola kudeatzen zen maila praktikoan. Zer ikusi nuen? Ba emailleak oso garrantzitsuak zirela klinikarentzat; are, elementurik garrantzitsuena zirela, tratamendu horrek ematen dielako diru gehien. Honekin ez nuke ulertzera eman nahi



ARRUNT TXUKUNA
GELDITU ZAIGU!

OIARTZUERA ERABILTZEKO GIDA





Liburuxkak
Urrats paperdendan
salgai, 5 euroan.

klinikako langile indibidualei ez zaizkienik axola emakume horiek, eta askotan saiatzen dira emakume horien beharretara egokitzen eta beste. Baina, negozioari dagokionez, oso inportantea da emailak edukitzea eta emailak zikloa amaieraraino garatzea. Langileek azaldu zidatenaren arabera, ohikoa zen emailak prozesua ez bukatzea edo prozesuaren erdian desagertzea. Hori eragozteko mekanismo batzuk dauzkate kliniketan.

Esaterako?

Emailak klinikara hurbiltzen direnean lehendabiziko aldiz, egunean bertan ahalik eta gauza gehien egiten saiatzen dira klinikakoak. Izan ere, balizko emaila informazio bila etorri bada eta hurrengoan bere kabuz itzuli behar badu, agian ez da berriro etorriko. Beraz, sarritan, lehen bilera informatiboan baimena sinatzen da, dokumentuak ematen dizkiete, eta ezin direnez etxera eraman, ba momentuan bertan sinatu behar dira. Halaber, ahal bada probaren bat egiten saiatzen dira — odol-analisiak, ekografiak... —, pertsona hori emaitzen bila itzuli behar izateko. Prozesuarekin lotzeko modu bat da.

Eta diruarekin?

Ordainsaria baldintzazkoa da beti. Baliteke zu prozesuarekin hasi izana, baita injekzioekin ere, eta hala ere ez dago ziurtatuta dirua jasoko duzunik. Pertsonak zikloan zehar duen jokabidearen arabera da. Adibidez, pertsona batek huts egiten badu hitzorduetara, esaten diote agian ordainsaria murriztuko diotela edo ez diotela emango. Bestalde, aipatu behar da emailen baimenean badagoela klausula bat, hala dioena: arrazoi ez medikoengatik

prozesua eteten bada, bertan behera utzi behar bada emailen “zabarkeria” edo “fede txarragatik”, klinikak ordura arte gastatutako dirua itzuli behar luke emailak. Klinikak esan didate ez dutela inoiz halakorik egin —bestela ere ez luke zentzurik, emailak hor diruagatik daudela kontuan hartuta—, baina tira, hertsapen-neurri bat da argiki.

Kliniken praktiken inguruan beste zerbait aipatu nahi zenuke?

Orain arte aipatutakoak kontrolarekin lotutako neurriak dira, baina badago beste geruza bat emailak zaintzeari dagokiona. Hori askotan errepikatzen zuten: emailak zaindu behar ditugu, bestela beste klinika batera joango dira. Klinikentzat, arrakasta-adierazlerik onena emaila batek klinika adiskide bati gomendatzea zen. Eta, zentzu horretan, bestelako profil batzuetako langileak dauzkate, arlo medikotik kanpokoak, emailakiko komunikazioaz bakarrik arduratzen direnak. Emakumeak dira beti, gehienetan gazteak, eta halako gertutasun-sentipen bat lortzen saiatzen dira. Eta, adibidez, errusiar jatorriko emailak asko dagoenez, ba itzultzaileak dauzkate.

Emailak eta hartzaileak ez dira espazio berean egoten, ezta?

Ez. Klinikak esaten zutenaren arabera, hau zen arrazoiak: batzuek eta besteek elkar ez epaitzea, oso agerikoa baita nor den nor. Horrez gainera, klinikak batzuetan ez dute nahi izaten hartzaileak emailak ikustea. Hor badago

klase-kontu bat, ezkututzen saiatzen direna.

Hau guztia aintzat hartuta, gomendiorik egingo zenuke?

Tesian ez nuen gomendio politikorik proposatu ondorio gisa, baina nire iritzia eman dezaket. Egia esan, ikuspegi pesimista samarra daukat egin daitekeenaren harira. Ez dut uste ezin daitekeenik ezer egin, baina honen inguruan dagoen industria hain da handia, ez dakit zer neurritan antola litekeen beste modu batean.

Emailen

anonimotasuna deuseztatzea urrats bat litzateke?

Faktore garrantzitsua da. Anonimotasunak gauza mordo bat baimentzen ditu, eta deuseztatuko balitz gauza asko aldatuko lirateke, emailen ikusezintasun hori ez litzatekeelako posible izango.

Eta gero?

Gauza batzuk aldatuko balira, nire ustez emailen onerako —eta, orain arte aipatu ez dugun arren, jaioko diren horien onerako ere— litzateke, donazio-kopurua ere jaitsi egingo litzateke, eta prozesuen abiadura ere bai, beste herrialde batzuetan gertatu den bezala. Orduan, itxaron-zerrendak sortuko lirateke berriro, eta jende askok agian ezingo luke nahi duen hori lortu. Baina hausnarketa atzerago eraman behar dugula uste dut. Haurrak izatearen harira sortzen diren arazoak nola kudeatzen ari garen hausnartu behar dugu. ●





Iritziak

Hauteskundeak AEBetako gizarte erdi-demokratikoan



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Jeffrey Sachs ekonomialari eta irakaslea ospetsu egin zen Berlingo Harresia erori ostean Polonian eta Errusian sozialismo errealeko ekonomietatik kapitalismorako trantsizioa egiteko aholkulari bilakatu zelako. Ondoren, garapen iraunkorrean, makroekonomian eta pobreziaaren aurkako borroka alorretan aritu da Columbia unibertsitateko The Earth Institutuko Zuzendari gisa 2002 eta 2016 artean.

Sachsek Athens Democracy Forum-ean hitz egin du berriki, AEBetako sistema politikoa era zorrotz batean definituz isilarazi zuten arte: "Ameriketako Estatu Batuak gizarte erdi-demokratikoa, hierarkikoa eta arrazista da, zuriak dira nagusi, eta eliteen pribilegioei eutsi nahi diete. Horrela eratu zen 1787an, herrialde genozida eta esklabista zen, natibo amerikarrak hiltzen zituena kultura zuria izateko; baina harrigarria bada ere, hala izaten jarraitzen du, nahiz eta orain ginena baino askoz ere desberdinagoak garen".

Askotan AEBetako lehia ideologiko moderatua eta egonkortasun demokratikoa goraipatu dira. Hau posible izan da, besteak beste, hauteskunde sistematik kanpo utzi direlako zenbait sektore sozial baztertu, bereziki pobreak, etorkinak eta afroamerikarrak. Horregatik, politikariak gizarteko errealitatea baino bertsioa askoz homogeneoagoa, zuria goa eta moderatuagoa dira. Izan ere, AEBak existitu direnetik gradu altuago edo baxuago batean ez ditu bete demo-

Askotan AEBetako lehia ideologiko moderatua eta egonkortasun demokratikoa goraipatu dira. Hau posible izan da, besteak beste, hauteskunde sistematik kanpo utzi direlako zenbait sektore sozial baztertu, bereziki pobreak, etorkinak eta afroamerikarrak

krazia liberal baten baldintza minimoak. Hauen inguruan adostasun zabala dago Politika Zientzian, hiru elementutan laburbildu genitzake: pertsona batek botorako eskubidea eta hautagai izateko eskubidea izan behar du eta lehia, gutxi gorabehera, aukera berdintasunean eman behar da.

Baina AEBetan boto eskubidea ez dago segurtatuta. Batzuetan ideal horretara gerturatu eta beste batzuetan urrundu egiten da. Estatu bakoitzak nahi duen bezala arautzen du boto-emaile bezala erregistratu nahi duen pertsonari eskatuko dizkion paperak eta baldintzak. Bestalde, formalki erregistratu guztiek


hauteskundeetara aurkezteko aukera badute ere, praktikan hau egikaritzea oso zaila da dirudunak ez direnentzat edo aberatsen babesak ez dutenentzat. 2022ko Presidentearen agintaldi erdiko hauteskundeetan milioi batek bi alderdiei eman dieten zenbatekoa inoizko handiena izan da eta diru-emaileen artean diru-sarrera handiena duen %1ak emaniko diru guztiaren %38 eman du. Horrela bada ez dago dudarik hautaturiko Kongresurako ordezkarien artean dirudunek lagun asko izango dituztela.

Emaitei begiratzen badiugu, demokratik uste baino askoz hobe eutsi diote, litekeena da Ordezkariei Ganbara errepublikanoen esku gelditzea, baina gehiengo ez oso zabalarekin. Horrek garrantzia du Joe Bidenen gobernuak ordezkari errepublikano batzuekin negoziatuz bere lege proiektuen aldeko botoa lortu ahal izango duelako. Bestalde, Senatuan gehiengo demokratikoa izango da. Horregatik, bazterrak nahastuta daude errepublikanoen artean, inkestek iragarri zuten olatu gorria ez baita iritsi, eta ez da harrizkekoa, Trumpek gaitzespen handia sortzen du gutxiengo etnikoen artean eta zenbait estatuk klabetan, lehia estu dagoen horietan eta aborturako eskubidea zalantzan dagoen horietan, emakumeen mobilizazio inportante bat egon da errepublikanoen aurka. 2024ko hauteskunde presidentzialak begira, badaezpada errepublikanoek beroketa ariketak egiten jarri dute Ron DeSantis, eskuin muturreko Floridako gobernadore ez hain zaratsua. ●

Txepelkerien txapelketa



SONIA GONZALEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Lutxanako lagun batek eta biok goratzeari ekin genion aurrekoan: kutsadura, hildakoak, protestak, sirenak, isuriak, hildako gehiago... Arratoiak ginela Bizkaian kantatzen zuen Eskorbuto. Txiki-txikitatik ikasi genuen gure bizitzek ez zutela ardurarik. Industria-birmoldaketa etorri zen gero eta, linda-noak memoria lapurtu izan baligu bezala, horiek guztiak ahaztea hobetsi genuen.

Desindustrializazio prozesuak Estatu osoari eragin zion. *Conditio sine qua non* izan zen Europara sartzeko. Izan ere, Europak hasiera-hasieratik planifikatu izan du lanaren banaketa estatukideen artean. Hala, Espainiako Estatuari hiru-garren sektorean espezializatzea tokatu zitzaion eta, horren barruan, turismoan. Toki ezin aproposagoa da, bere eguzki eta paellekin, sangria eta *fiestarekin*... eta, jakina, edozein azterketatan, nahi barik ala nahita, ahazten diren putetxe guztiekin. Espainia liderra da prostituzioaren negozioan: lehenbiziko postua European, hirugarrena mundu mailan.

Denok dakigu turismoak zer dakarren. Batetik, soldata baxuak eta prekarietate handia; aldi baterako kontratuak, udako sasoian baino jango ez bagenu bezala; zerbitzu anitzeko enpresak eta esplota-

ziorako irudimenezko tresnak... Bestetik, hirien turistifikazioak herritarrak kanporatu egiten ditu, etxebizitza bat esku-ratzea ezinezko bihurtuta. Euskal Herri osotik zehar ari gara hezur-mamietan pairatzen: Bilbon, Donostian, kostaldean, Iparraldean...

Eta hortxe Guggenheim, proiektuaren bandera-ontzia. 25 urtetako negozioaren loriak kantatu izan dituzte berriki hantxan. Barra-barra sartzan omen da dirutza... Bai, baina hotel, inbertsio-funts eta multinazionalak jabeen poltsikoe-tara. Kito.

Baina ez dezagun ahaztu turismoa mugikortasunean oinarritzen dela. Turista bat toki batetik beste batera mugitzen den pertsona da. Azken urteotako turista uholdeak posible izan dira garraioaren eta, batez ere, hegaldien prezio merkeagatik. Orain, petrolioaren gainbeheran bete-betea sartuta gaudela, zer? Ryanairreko zuzendari orokorrak abisatu du honezker: hegaldia merkeak amaitu egin dira. Eta ez da zerbait koiunturala edo gerrak sortutakoa; aitzitik, lehengaien eskasia da gerraren arrazoietakoa bat.

Honen guztiaren eragina pairatzen hasiak gara, depositua betetzen dugunero, adibidez. Berogailuari beldurrez begira-

tzen diogu, baina beldur handiagoa eman beharko liguke jakiteak oraindik piztu behar ez izana aldaketa klimatikoaren erru zuzena dela.

Lurraren muga fisikoak gainditu egin ditugu eta horrek ez dauka bueltarik. Ez dagoen tokitik ezin da atera. Eta horrek egitura sozioekonomiko osoan ezin aurreikusi dezakegun lurrikara sortuko du. Bien bitartean, beste Guggenheim bat eraikitzean tematurik diraute. Proposamen ezin zoroagoa: amaituko den negozio bati tiraka jarraitzea, non eta biosferaren erreserba baten erdi-erdian. Zer da hau, baina, txepelkerien txapelketa, ala?

Txiki-txikitatik ikasia daukagu. Gure bizitzek ez dute ardurarik sistema kapitalistan, berdez, morez edo edozein kolorez margotuta datorrela ere. Eta ez dute ardurarik sistema hori babestea helburu nagusitzat duten agintarientzat ere.

Datorren koiunturarako prestatzen egon beharko ginake. Denbora erlatiboa da, baina ez mugagabea. Birmoldaketa sakonagoa gauzatu beharko da, pasa den mendearan amaieran inposatu zigutena baino. Oraingo honetan nahi eta nahi ez, ezinbestez eta derrigor. Eurek ere badakite, baina zintzotasuna eskatzea gehiegi bide da. ●



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Ni ez nago harro

Euskaltegi “publiko” edo titularitate publikoko batean ari naiz lanean. Susmoa dugu, azken aldian, sare hau agortzea bilatzen dutela batzuek. Horregatik amortizatzen dira jubilatzen diren irakasle askoren postuak. Garai bateko egoera gatazkatsutik sortutako ez-sarea gara. Izan ere, eta Joseba Arregik ETBn onartu zuen bezala, “euskaltegi publikoak AEKri eta HBri euskaltegien monopolioa kentzeko sortu ziren” 1980ko hamarkadan. Hala ere, uste dut beharrezkoa dela euskaltegien sare publiko bat, nola ez. Administrazioek bermatu egin behar dute helduek euskara ikasteko duten eskubidea, eta horretarako ezinbestekoa da euren titularitateko sarea.

Hori esanda, ni ez nago harro euskaltegi publiko batean aritzeaz. Hasteko, gure sarea, Bildarratz buru duen ikastetxeena bezala, hiru herrialdetara mugatzen delako. Beraz, inposatu zaigun banaketa horren morroi gara, eta irakasleok beste ikuspegi bat eman nahi badiogu ere, mugak agerikoak dira.

Bestetik, Eskola Publiko askotan bezala, gurean ere dokumentu metodologikoak sarritan apal batean egoten dira, benetako pisurik gabe. Euskaltegietan Curriculum eta Eskola Publikoetan Hizkuntza-Proiektuak bertako klaustroaren eta sarritan irakasle jakinen arabera hartzen dira kontuan. Eskola publikoetan gaur Eki, bihar Ibaizabaleko liburuak eta etzi Santillanakoak erabiltzen dituzte,

irakasleek dituzten irizpideen arabera. Gurean ere askotan irakasle bakoitzak metodo komunikatiboa erabiltzea erabaki dezake, edo bide estruktural edo tradizionalagoa.

Eskola publikoetan gertatzen den bezala, gurean ere ikasleek erdaraz hitz egiten dute maiz euskaltegitik irtenda, zentroko karrajuetan eta batzuetan klase barruan. Badakigu ez dagoela gure esku ikasleen testuinguru guztietan eragitea, mugatuta gaudela euren erabilera maila igotzeko, baina uste dut badugula gehiagorik egiterik, baliabide gehiago eskatzerik eta egiturazko aldaketak aldarrikatzerik.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, ez dut ulertzen baldintza hobeak eskatzeko, nireaz harro nagoela aldarrikatu behar dudarik. Beste sare batzuek ere geuk pairatzen ditugun hainbat arazo partekatzen dituzte gurekin, baina pozik nago euren baldintzak azken aldian hobetu direlako. Badakit ezingo lirakekeela ikasle guztiak “sare publikoan” sartu, eta egiten duten lana ezinbestekoa da herri hau noizbait euskaldunduko badugu.

Hori bai, ez nuke onartuko euskara erlijio bat zabaltzeko erabiltzea, eta hori gertatzen da irakaskuntza araututan. Hezkuntzan ere ez lukete onartuko mozkinak banatzen dituzten eskolek diru-laguntzak jasotzea. Bietan dugu zer hobetu, baina momentuz, behintzat, ez dugu harro egoteko arrazoirik. ●



**CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA**

Kezko maiteak

Batzuetan nahi ez duzun tokian bukatzen duzu jada maite ez zaituen batekin. Nik Cristina Rosenvingeren kontzertu batean bukatu nuen lehengoan. Ez naiz akordatzeko kanta bakar batekin ere, baina bai kanten artean Rosenvingek esaten zuenaz. Desezriaz hitz egin zuen, nola bere bi guraso daniarrak ezkontza bidaian joan ziren Espainiara, eta autoa izorratu eta bertan geratu ziren. Berak ez dakiela daniaraz hizketan, eta nola saiatzen zen aita azentua ezabatzen kanpokoa zela jakin ez zedin eta, nola amak, berriz, daniararen arrastoa mantendu zuen betiko. Aitak ez zuen inoiz kontzertu batean ikusi.

Ama joaten zen aukera zuenean jarrita egoteko. Bere aitari buruzko aipamenak egin zituen beretako ezezagun bat zena guri aurkeztu nahi izan baligu bezala. Kontatu zigun Federico García Lorcaren poemen bidez ikasi zuela ingeniari daniar hark gaztelaniaz. Zer pentsatua eman zidan. Lan berri bat hasten dugunean beti behar da pizgarri bat, detonagailu bat, akuilu bat. Eta nago askotan dela guretako ezezaguna den zerbait deskubritu nahi izatea. Maite izan genuen norbait, ezabatu nahi izan duguna kezko bilakatu arte, baina azalarazten ari garen heinean geure burua agertzen duena. ●

Bizitzarako lurrik gabe etorkizunik ez



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Bizitzarako beharrezkoak diren lurrik gabe geratu gara. Elikadura ekoizpenak, energia sorkuntzak, lan egiteko tokiak, kultura garatzeko topalekuak, hezkuntzarako eremuak, datuen metaketak, denek behar dute lurra, eta ez daukagu, edo ez behintzat jabetza kolektiboan. Eta horrela ezinezkoa da etorkizun burujabeak eraikitzea. Etorkizunak jabetza pribatuaren esku utzi ditugu.

Bizitzarako lurraren galera ez da gatazka gabe gertatzen, eta egunerokoan ikusten dugu disputa, komunak izan beharko luketen espazioak kapitalaren mesedetan ustiatzeko, bizitzarako gaur egungo edo etorkizuneko beharrak bigarren plano batean utziz. Gertatzen da ere, bizitzarako beharren artean, behar batzuk besteen aurrean gailendu nahi izatea, bizitza bera interdependentzien sare bat dela onartu gabe. Azalean ikusten ditugun tentsioak dira, oraintxe bertan Erdizen, Arbonan, Donostiako alde zaharrean, Piaspen edo Euskal Herriko eta munduko herri, auzo eta eremu askotan gertatzen ari direnak. Tentsio gehienak, kapital metaketarako oraindik lurrak duen garrantziaren ondorio

Ekonomia kontuetan maisu dudan Oscar García Jurado lankide andaluziarrak beti gogorazten digu, lurrak ez duela balioa galtzen, horregatik dela hango eta hemengo jauntxoaren boterearen oinarri

dira, baina gero eta gehiago ikusiko ditugu, herritarron behar ezberdinen arteko mailaketaren ondorioz gertatzen direnak. Gatazka eremu unibertsal baten aurrean gaude.

Ekonomia kontuetan maisu dudan Oscar García Jurado lankide andaluziarrak beti gogorazten digu, lurrak ez

duela balioa galtzen, horregatik dela hango eta hemengo jauntxoaren boterearen oinarri, eta ezinbestekoa dela, lurra bertan lan eta bizi denarentzat izatea. Bidean bi ildo landu behar ditugu ezinbestean. Batetik, lurraren erabileraren planifikazio herritarra behar dugu, gaurko eta etorkizuneko erabilera herritarren eta ez kapitalaren beharren arabera antolatzeko. Bestetik, lurren eta bizitzeko espazioen berreskuratze proiektuak indartu eta ugaritu behar ditugu, baditugu adibideak hurbilean: Lurzaindia, Etxalde, La Borda, Marinalda, Biziola eta sortuko direnak.

Nola egin ordea komun materialen pribatizazioa ia gertatu den eta komun inmaterialen pribatizazioa gertatzen ari den garaiotan egoerari buelta emateko? Bideak publiko-komunitarioa izan beharko du, herritarrok egina, horretarako eskura ditugun tresna instituzional eta kooperatiboekin gure lurraldeetan jabetza kolektiboko proiektuak eta egiturak sortuz, lurra erosi, berreskuratu eta kolektibizatuz. Adibidez, gure aurrezkiak Koop57n batu ditzakegu, txikitik ere bizitzarako lurrak eta etorkizunak berreskuratzeke. ●

2022ko
DONOSTIA HIRIKO
KUTXA LITERATURA
SARIAK

Behin batean Loiolan
Iñaki Cid Larrea

HARAGIZKO
MAMUAK
Karmele Mitxelena

50
URTE
elkar

www.elkarargitaletxea.eus



**Euskaraz
Zara,
euskaraz
gara.**

**Lezoko Udala
euskararekin
da!**

1976, ZARAUTZ

Felipe Suarez eta Federico Astilleros Guardia Zibilak tirokatuak

1976an bi lagun autoa tirokatu zuen Guardia Zibilak Zarautzen. Garaian betiko aitzakia eman zuen indar polizialak, autoa ez zela kontrolean gelditu, kontrola saltatu zuela. Handik bi egunera hila zen Felipe Suarez, buruan jasotako balaren eraginez. Artean, zauriturik baina bizirik zen Federico Astilleros: “Han ez zegoen kontrolik!”, esan izan zuen beti Astillerosak, baita etxeko tabernara kontrakoa esateko agintzera etorri izan zitzaion Guardia Zibilari berari ere. Guardia Zibilak eta Espainiako Gobernuak ez dute inoiz barkamenik eskatu, errudunak ez dira inoiz epaitu.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Egunkarietako ebaki zaharretako lerroburuak dira: “Gazte bat hilik, zauritua izan eta gero, kontrol batean ez geratzean [Zarautzen]”, “Zarautz. Hildako bat kontrol bat saltatzean”... 1976ko apirilaren 10ean, larunbata, 21:30ean, Felipe Suarez Delgado eta Federico Astilleros Ocaña Zarautzik Zestoara, etxera zihoa-zen autoa tirokatu zuen Guardia Zibilak, Zarautzik Meagara bideko orduko lehen bihurgune bihurrian.

Felipe Suarez Delgado auto-gidariak irekita zeraman leihoa. Guardia Zibilak tiro egin eta buruan sartu zitzaion bala, barruan lehertu metraila; Federico Astillerosak, berriz, besoan jaso zuen tiroa. Hurrengo egunean hila zen Suarez, eta

ondoko egunetan eman zuten albistea Frankismoa sostengatzen zuten bateko eta besteko egunkariak: kontrola “saltatu” zutela, ez zirela geratu... Hedabideek gertakarien sailera baztertu zuten berria, astea lehenago Anjel Berazadiren hilketari eskainitako azal eta argazkiak ukatuz, adibidez. Eta, hain da horrela, ez baita Guardia Zibilak tiro egin zuen hartan gertatuaren irudirik –inolako erreproduktzioerik ez, fotografiarik ez berrekitzerik–, autoaren argazki “bahitua” baizik: Suarez-Perez familiak senar eta aita izan zutena biktimatzat aitortzeko eskariaren barruan aurkeztu zuten argazkia Palentziako epaitegian iaz, itzultzeko eskatua ere dute, baina artean ez dute jaso.



DESTINOA: ZESTOA

1976an Zarautzko hartan hildako Felipe Suarez Delgadoren alarguna da Valentina Perez Saiz. Palentziako (Espainia) jaioterrian da senarra hil ziotenetik. 50 urte atzera egin eta hasi zaigu: “Gure aita telegrafoetako langilea zen, eta Zestoan jardun zuen lanean, bainuetxeko bulegoan. Zestoan zegoela, Koiote tabernan bizi izan zen, apopilo, eta, geroko batean, nire senarrak –telegrafoetako langilea hura ere–, destitotzat Zestoa hartzeko aukeran izan zuenean, gure aitak haraxe joateko esan zigun, herria polita zela; jendea, adeitsu; gustura egon zela bera han. Haren hitzei jarraikiz joan ginen gu ere Zestoara –senarra eta biok eta bi haurrak–, telegrafo-etxean destinoa har-



Felipe Suarez Delgadoren alarguna Valentina eta semea, Felipe, senar eta aitaren hilobian, Palentzian.

tuta". Valentina Perezen inguruan denak ziren telegrafoetakoak: "Gure aita, nire ahizpa, neba, ni neu geroago, eta, denak har, nire senarra, Felipe Suarez Delgado, Zestoako Posta eta Telegrafo bulegoko buru garai hartan", hau da, 1975eko azarotik 1976ko apirilera arte, Guardia Zibilak Zarautzen tiroz hil zuen arte.

Felipe Suarez Delgado, 1947an Leonen jaioa, telegrafoetako langile ogibidez, Bartzelonara destinaturik ari zen emazte izango zuena, arestian aipatu dugun Valentina Perez Saiz, ezagutu zuenean. "Bartzelonara joan nintzaion ahizpari bisitan, hura han baitzen telegrafoetako lanean. Ni han nengoen eguketako batean, laneakoak elkarrekin irten ziren, eta ni ere bai, ahizparen eskutik.

"Aitak esaten zuen
guardia zibilak
ezkutatuta zeudela,
konturatu zeneko
ta-ta-ta-ta! aditu zuela
eta sorbaldaren kontra
zeukala Feliperen
burua"

Marian Astilleros Izeta

Orduantxe ezagutu nuen Felipe, eta hasi genuen harremana. Bera Leongoa –baina Bartzelonan lanean–, Palentziakoa ni, Kataluniatik etxera, Leonera zihoala, Palentzian gelditzen zitzaidan, eta estutu genuen harremana, eta ezkondu ginen 1972an". Senar-emazte eginik, destinoa mudatu ahal izan zuten, eta, aukeran, Xixonen jarri ziren bizitzen.

Felipe Suarez Delgado Leonen (Espainia) jaioa zen, baina asturiarrak zituen gurasoak eta, bestalde, familia osoa ere andre-etxe Palentziatik hurreago zegoen Xixonen, Bartzelonan baino. "Gure bi seme-alabak Xixonen jaio ziren, eta han ginela, destino berria hartzea egokitu zitzaion Feliperi. Ez genuen Palentziako herririk aukeran, baina balizko



Felipe Suarez Delgado
seme-alabekin.



Manuel Fraga Iribarne garaiko barne ministroak
doluminak helarazi zizkion Suarezzen familiari.

destinoen artean, ordea, Zestoa agertu zitzaigun, eta, herri hura agerturik, gure aitak haraxe joateko bihotz eman zigun”, Valentinararen aita han egona baitzen lanean, lehenago esan dugunez, eta ezagutzen baitzuen herria. Lagun zituen zenbait herritar eta, denak har, Koiote tabernako Astilleros-Izeta familiako ki-deak. “Eta gure aitak lagundurik, familia osoa etorri ginen Zestoara, herria ikuster”. Eta ikusi zuten, eta bertan jarri ziren lanean eta bizitzen.

Hala ere, kezkarik ere bazuen Valentinararen aitak: “Gure aitari beldurra ematen zion posta eta telegrafo bulegoa guardia zibilen kuartelaren ondoan ego-teak. ‘Kontuz ibili!’, esaten zuen, ‘ez ahal da gertatuko baten batek, ETakoek edo, haiei eraso egitea, eta zuek min hartzea!’. Horixe esaten zuen. Eta, azkenean, Guardia Zibilak berak hil zuen Felipe!”, esan digu Valentina Perez Saizek.

Suarez-Perez familia aise jarri zen Zestoako bizimodura. Esaten du oraindik Valentina Perez Saizek: “Oso ongi hartu gintuzten Zestoan. Bi haur txiki nituen, Felipe eta Noelia, hiru eta bi urtekoak. Kurtsoa hasita zegoen, baina hantxe hartu zuten eskolan Felipe. Noelia nirekin zen, etxean [Santa Kruz kalea 5, 3. ezk.], eta gogoan dut banituela auzo

“Senarrari [Felipe Suarez]
gelara joan nintzaionean,
eskutik heldu nionean,
gogor hartu zidan
neurea, estu-estu, min
egiteraino, ordea”

Valentina Perez

bi oso jatorrak; batek Manoli zuen ize-na, bestearen izenaz ez naiz gogoratzten. ‘Izeba’, esaten zieten gure umeek”. Beste oroitzarik ere badu Valentina Perezek: “Gure mutikoak, Felipek, ondoezen bat izan zuen, eta medikuaren era eraman nuen. Gu funtzionario ginen, ez genuen gizarte segurantzarik, baina medikuak ez zuen eragozpenik izan gu atenditzeko. Ez genuen denbora askorik egin Zestoan, baina asko maite gintuztela esango nuke”. Horretan da Valentina Perez.

Eta azaroaren 20az gero, urak bere bidea egin zuen lau hilabetez, 1976ko apirilaren 10 arte.

GUARDIA ZIBILAREN EZ-KONTROLA

Lagun mami egin ziren Felipe Suarez Delgado eta Federico Astilleros. Lanetik irten eta elkarrekin ziren biak beti edo gehienez. Horretan, funtzionarioa destinatorik destino beti. Erretiroa hartu zuen Palentziako Herrera Pisuergako telegrafoetako buruak. Tokia hutsik, eta Palentziara nahian beti Suarez-Perez familia, haraxe eskatu zuen Felipe Suarez Delgadok. Lortu ere bai plaza. Bi lagunek agurtzeko garaia zuten. Astelehenarekin, 1976ko apirilaren 12an zen Felipe Suarez Delgado lanean hastekoa Herrera Pisuergako bulegoan.

Aste hartan bertan egin zuen Palentziara Valentina Perez Saizek bi umeak hartuta, ahizpa erditzeko zorian hantxe zegoela, eta, senarra, berriz, Palentziarako trasladoaren jabe.

Larunbatean, bi adiskideek elkar agurtzea asmatu zuten, eta, Zestoa gabe, Zarauzko aldea hobetsi zuten, Astilleros-ek halaxe nahita, nonbait, laguna puska batera arte despeditu behar zuela-eta.

Zestoara itzultzeko garaian, iluntzeko 21:30ean –aseguru-etxearen partearen arabera beti–, Zarauztik irten, Meagako bidea hartu eta lehen bihurgune bihurrian Guardia Zibilaren tiroek Felipe

Suarez Delgado hil zuten, eta zauritu, berriz, Federico Astilleros Ocaña.

Hurrengo goizean, telefono-deia jaso zuen haren emazteak, Valentina Perez Saizek, gurasoen etxean, Palentzian. Gogoan du: “Goizean jaso genuen deia, baina ez dakit nork hots egin zuen, gure aitak hartu baitzuen. Felipek trafiko-istripua izan zuela esan zioten. Eta hartu autoa eta abiatu ginen aita, koinatua eta hirurok. Gure anaia Luis jaso genuen Gasteizen, hango telegrafo bulegoan lan egiten baitzuen, eta Donostiako Gurutze Gorri joan ginen”. Eguerdi aldera heldu ziren, balizko “trafiko-istripua” eta Feliperen osasun-egoera burutik ezin kendurik. “Eta Gurutze Gorri heldu, eta guardia zibilak kalekoz jantzita harantz eta honantz. Eta medikua etorri zitzaigun, zer moduz zegoen-eta azaldu, eta: ‘Badakizue nola izan den?’, ‘Trafiko-istripua, nonbait’. ‘Ez, ez, guardia zibilek tirokatu dute’. Harri eta hotz geratu ginen. Ezin sinistuan... Tiro egin zioten Felipe eta Fede zihoazen autoari, bala sartu zioten Feliperi buruan, metraila garunean lehertu zitzaion. Ez zen hurrezkero bere senera etorri, eta bizi izan balitz ere, ez zatekeela inoiz sendatuko, esan zigun medikuak. Eta, hala ere, gelara joan nintzaionean, eskutik heldu nionean, gogor hartu zidan neurea, estu-estu, min egiteraino, ordea!”. Felipe

“Fraga Iribarne ministroak doluminak eman zizkidan, baina alferrik ari zen, Guardia Zibilak senarra hil zuen, eta gurasoen laguntzaz atera nituen aurrera bi umeak”

Valentina Perez

Suarez Delgado hila zen hurrengo egunean. “Badakit Donostiako telegrafoetako burua [Juan Etxeberria Puig, ustez] Guardia Zibilaren buru egiten zuenari joan zitzaiola, [Antonio] Tejerori, gero [1981] otsailaren 23an estatu kolpea eman zuenari, eta asto beltzarenak eta bi esan zizkiola”. Valentina Perez Saizek gogoan atxiki du hori ere. Felipe Suarez Delgadoren gorpua zinkezkotutara sartu zuten, Palentziara eramateko gestioak egin zituzten.

Hildakoaren aldeko meza esan zuten Zestoan, gorputza bertan zegoela. Diote, egia ala gezur, ikurrina ere jarri

zutela hilkutxaren gainean, alargunak hura kentzeko ere agindu zuela... Gero, Palentziara eraman zuten.

Valentina Perez Saizek estu eta larri eta urduri eman zituen ondoko egunak, Palentzian, gurasoen etxean babesturik. Hantxe biziko zen, bi haurrekin batera, lanerako gauza izan zen arte. “[Telegrafoetako] oposizioak prestatuak nituen ordurako, egin nituen, eta gainditu. Bartzelonara eman zidaten destino, baina haur txikiak nituen, Palentzian bertan lanean egoten utzi ninduten, zerbitzu-betekizunean”. Eta hantxe lanean, Guardia Zibilak senarra hilik, gidatzen zuen autoak kontrola “saltatu” zuenean.

Artean zauriturik zetzan Fede Astilleros, bizirik, eta lekuko.

Eta gertakariak, egia ofiziala ez besterik eman zuen garaiako *Zeruko Argia*-k.

FEDERICO ASTILLEROS, TESTIGU

Federico Astillerosen alarguna da Kontxi Izeta, Koiote tabernako alaba. Galdetu gabe hasi da: “Egunkariak ez zuen egirik ekarri. Guardia zibilek asko agintzen zuten orduko garaian, kontrola zegoela esan zuten, baina kontrolik ez! Horixe esaten zuen gure gizonak, kontrola egon balitz geratuko zirela, ez zeukatela ezkutatzekorik... Gizajoa, hil zena, Felipe!”, esan digu Izetak, udaberri hartako gau beltz hartara gogoia eramanez:


BAT, ERAILA, ETA BESTEA ZAURITUA

Apirilaren 10ean, gauetz, gure bi herrikide autoan zihoazelarik tirokatuak izan ziren Zarautz aldean. Herrikideok Posta Etxean lanean zebilen Felipe Suarez eta aspaldidanik Zestoan finkaturik dugun Federico Astilleros “Rubio” ziren.

Pare bat egun geroago Felipek azken arnasa eman zuen Donostiako Cruz Roja gaisotegian. Abiatu berri zirenez eta makal zihoazelarik ez zuten deus ikusi, tiroak entzun eta gorputzean jasan baizik.

[Kronikak ez du sinadurarik, baina Manuel Arregi zestoarrak idatzi zuen. Kronika berean, maiatzean Zestoan izango den kultur hilabeteari buruzko berri laburra, eta, ondoren, “Probokazio bat” lerroburu duen honakoa].

Zeruko Argia, 1976, maiatzak 2, 686. zenbakia. Zestoa





Marian Astilleros eta Kontxi Izeta Zestoako familiaren tabernaren aurrean.

“Gure gizona ez zen berandu zalea, baina egun hartan, ni zain eta zain, eta gizona ez etortzen, eta berandu! ‘Ze arraro!’, pentsatu nuen. Eta halako batean, zain eta zain ni, eta zarata-edo, mugimendua-edo, eta, irten dut balkoira eta non ikusten ditudan gure ahizpa, frentean bizi zena, eta gure anaia, kalean. ‘Zer edo zer pasatu duk hemen orain ere!’, eta balkoitik hots egin nion ahizpari eta etxera etorri zitzaidan, eta, hurrengo goizean goizago, autoa hartu eta Donostiara eraman ninduen gure anaiak, eta esan zidaten zer pasatu zen”. Antiguán, Matia kaleko Gurutze Gorrian, Kontxi Izetak hainbat gaixo ikusi zituen, gela handi batean denak. Tartean ziren bere gizona eta haren adiskide mina. Federico Astillerosek bala-zauria zuen besoan.

“Jaurlaritzako langileak
Feliperen berririk inon ez
zela agertzen idatzi zidan,
‘lurak irentsi balu bezala’,
baina ez zegoela amore
emateko prest”

Marian Astilleros

Larri eta handi zauriturik zegoen, berriz, Felipe Suarez Delgado: “Eta artean bizirik zegoela ikusi nuen, ez zen-eta derrepentean hil, hurrengo egunean

baizik. Burua dena bendatuta zeukan, konbultsioak zituen, eta ohera lotuta zeukaten... Izugarria izan zen hura. Bizirik ikusi nuen, eta hilda ere bai, eta ikusi ez banu nahiago! Buruan eman zioten tiroa, eta bala barruan lehertu! Guardia zibilek ez zuten erroberetara bota... Botazak, ba, erroberara, inor geratzeko! Baina ez, haiek gora bota zuten, eta gure gizonari ere besotik sartu zitzaion tiroa. Eta graziak, gainera, gure gizonak bolanteari eskuineko aldera egin ziola, bestela ezpondan beheara eroriko ziren biak... Hantxe eduki zuten hura ere, Gurutze Gorrian, operatu egin behar izan zuten-eta, bala hura besotik ateratzeko”. Astea eskas egin zuen Federico Astillerosek Donostiako Gurutze Gorrian, ez deskan-tsu handian, hala ere.

365 egunez

euskaraz
bizi

nahi dut



VALENTINA PEREZ SAIZ
Suarezen alarguna

Guardia Zibilak inoiz ez zuen onartu oker egin zuela. Bai, Fragak [Iribarne, Espainiako herrizaintza-ministroa garaian] doluminak eman zizkidan, baina alferrik ari zen, Guardia Zibilak senarra hil zuen, eta gurasoen laguntzaz atera nituen aurrera bi umeak. Inoiz ez dut biktimek jaso izan duten babesik jaso, ez seme-alabek ikasketak egiteko ez bestelakorik. Beste biktima batzuek era askotako laguntzak izan dituzte... Nik, estatuaren gutxieneko pentsioa jaso dut, 300 euro, senarra zena funtzionario izan zelako 9 urtez; soldadutzako urteak ere kontatu zizkieten, bestela ezta hori ere. Seme-alabei beti esan izan diet aita Guardia Zibilak hil zuela, horixe esan dut beti eta mundu guztia-
ren aurrean. 'Ez zegoen kontrolik' esan jendeari nik, eta batzuek, duda-mudan: '...Ez ziren gelditu...', eta nik: 'Esan dizut ez zegoela kontrolik!'. Felipek eta Fedek ez zeukaten ezkutatzekorik. Autoko maletategian ere artean patata zakukada zeraman Felipek, Zestoatik Palentziara ekartzeko'. Eta Valentina Perezek seme-alabei buruan sartu izan dien beste gauza bat, guardia zibilik ez hartzeko senar-emaztegaitzat, ez haien seme-alabarik ere. Zorrotz bete dute amaren agindua.



FELIPE SUAREZ PEREZ
Semea

"Txikitan, eskolan, aitzak zer lan egiten zuen galdetzen zigutenean, aitarik ez nuela erantzuten nuen, hil egin zutela, eta irakasleak ez ohi zuen hori baino gehiago galdetzen. Aitaita-amamek aita istripuan hil zela esaten zidaten, eta amak ere ez gintuen inoiz bi senideok hartu eta dena gordin kontatu. Nola edo hala, eta poliki-poliki, jakin dugu egia. Gogoan dut behin aitaren urrezko eraztuna azaldu zitzaidala etxean, eta eraztunak odola zuela, lehortua, barrualdean. Ez zait bizian ahaztu". Bada bizian ahaztuko ez duen besterik ere. Feliperen ama Valentina eta arreba Noelia ere ez ziren itzuliak inoiz Euskal Herrira, 2019an Suarez Delgado biktima aitortu zuten Bilboko ekitaldira arte. Felipe Suarez Perez, aldiz, etorria zen. "Donostian izan nintzen, emaztegaiarekin, eta, gero, Zarautzen ere bai. Han ginela [2016], egunkarian, berri bat, [Anjel] Berazadi eta gure aita omendu zituztela. Nola zitekeen, ordea? Ez nuen ulertu. 'Honek zer edo zer esan nahi dik!', pentsatu nuen, baina hortxe gelditu zen kontua, ondoko urtera arte.



NOELIA SUAREZ PEREZ
Alaba

"Fedek [Astilleros] lekukotza eman izan ez balu, inoiz ez genukeen egiarik jakingo. Zer zabaldu zuten, ba, hedabideek garai hartan? Guardia Zibila-
ren kontrola 'saltatu' zutela, ez zirela gelditu. Baina ez zegoen kontrolik. 2000. urtean, senarrak eta biok -abokatu gara- txostena osatu eta Espainiako Barne Ministeriora bidali genuen, gure aita biktimatzat har zezaten. Pikutara bidali gintuzten. Ezetz erantzun ziguten, ez zegokigula, legeak 'banda armaturen bateko kide diren pertsonen eragindako ekintzak' hartzen zituela xedetzat, eta ez zela gure kasua. Kasua onartu izan baligute, horrek, nolabait, Guardia Zibila banda armatua zela -eta terrorista, beharba-
da-, onartzea ekarriko zukeen. 2016an Eusko Jaurlaritzak poliziaren abusuez ari den legea [Estatuak eragindako Giza Eskubideen Urraketen legea, gaur egun], eman zuen arte, gure



KONTXI IZETA
Astillerosen alarguna

aita ez zuten biktimatzat hartu. Gaur egun, Felipe Suarez [Delgado] biktima da, baina EAEn baizik ez. Espainiar estatua-ren gainerakoan, gure aita ez da biktima. Eta eskerrak beti Mariani [Astilleros Izeta], hark egindako lanari esker lokalizatu baikintuen Eusko Jaurlaritzak, eta tramitatu ahal izan genuen eskaria. Bestela, ezer ez". Ez dute aitortzen Guardia Zibilak oker jokatu zuela", esanez bezala Felipe Suarez Delgado eta Federico Astilleros behar ez zen garaian, behar ez zen tokian zeudela, albo-kalteak jaso zituztela, Noelia Suarezek aditzera eman digunez.

Felipe zenaren semea Zestoa-ra etorri zen azkenean, eta, hurrena, baita Valentina bera ere. Esan nion nik andre hari: 'Nolatan behar izan duzu hainbeste denbora hona itzultzeko? Zer zenuen? Beldurra? Lotsa?', galdetu nion nik, eta berak: 'Ez dakit zer nuen'... Tristeia izan zen [Zarauzko] hura!'. Kontxi Izetaren mezua: "Egiak azaldu egin behar dira. Seguru asko, Felipe eta gure gizona bakarrik ez ziren izango kontrolean tiroka-eta hartu zituztenak, gehiago ere izango ziren, gehiago ere! Denak hartu behar dira kontuan, kulpak dene-tik, batetik eta bestetik izan dira-eta. Bestela, bakea ez da egingo sekula!". Inoiz bakerik egingo den duda egiten du Kontxi Izetak.



MARIAN ASTILLEROS IZETA
Alaba

Marian Astillerosek hamar urte zituen Zarauzkoa gertatu zenean... "Aitak esaten zuena zen guardia zibilak ezkutatuta zeudela, konturatu zeneko *ta-ta-ta-ta!* aditu zuela eta sorbaldaren kontra zeukala Feliperen burua, bolanteari beste aldera egin ziola, autopista aldera eroriko zirela bestela". Jaurlaritzak gai honetarako eratu zuen mahaiaren aurrean hitz egin behar izan genuenean, esaterako, Manuela Carmena ezagutu genuen, mahaikidea baitzen Jaurlaritzak biktimak izendatzeko batzordean. Ferroleko [Atxibategi Militarra] bidea saiatuko zuela agindu zigun, espediente lortze aldera, alegia. Saiatu zen, egin zituen gestioak, eta hots egin zigun: 'Marian, ez dut zuen kasuaren espediente lortu, klasifikatuta omen dago'. Holaxe, oraindik!', Marian Astillerosen kexua. Familiako medikuak emandako erantzunak, berriz, ez zegozkion Suarez Delgadoren osasun-egoerari, harekin batera autoan zihoan Federico Astillerosi baizik. Kontrola izan eta hilabeteetara egina da partea.



Palentziako
telegrafoen bulegoa.



Kontxi Izeta

Kontxi Izetak gogoan du: “Igande goizean Gurutze Gorrian ni Federen ondoan, eta guardia zibilek esan zidaten gure gizonak deklaratu egin behar zuela. Nik ezetz, artean operatu berria zela, ez zegoela ezertarako moduan, ezertarako gauza ez zela. Haiek, hala ere: ‘Deklaratu egin behar du, kontrola zegoela esan behar du’. ‘Ez, gure gizona ez da ohetik jaikiko hori esateko. Lehenengo, berak esaten du han ez zegoela kontrolik. Ez zeukan ez gelditzeko arrazoirik. Zeuek atera kontuak! Nola esango du, ba, kontrola zegoela!’. Eta gure gizonak ohetik: ‘Ez zegoen kontrolik, ez zegoen ezer’. ‘Bai, bazegoen!’, guardia zibilak. ‘Ez, ez zegoen, eta ezin dut esan bazegoela, kontrola egon izan balitz gelditu egingo ginatekeen eta’”. Kontrola bihurtu zuen Guardia Zibilak arazoaren giltza.

Aste hartan behin eta berriz joan zitzaizkion guardia zibilak Astillerosi. Kontxi Izeta da lekuko: “Deklaratzera eramane zuten gela batera, eta berarekin joan nintzen ni! ‘Zuk ezin duzu sartu!’, esan zidaten guardia zibilek, baina nik ere ez nuen atzera egin: ‘Bai, bai, ni sartu egingo naiz, gizona operatuta dago eta jakina sartuko naizela! Ez dut hitz egingo, baina aditzen egongo naiz!’”. Iztaren ausartzia. “Beharko ausarta izan!”, esan digu berak. Eta galdeketa hartan, berriz, beti betikoa, kontrola zegoela... *Zeruko Argia*-k bakarrik ekarri zuen egia”. Izetak esana da.

Felipe Suarez Delgado hil eta hurrengo asteburuan, Astilleros Zestoara itzuli zeneko, ehortzia zuten hura Palentzian.

Zenduaren familiak amaren sorterri-

“‘Deklaratu egin behar du, kontrola zegoela esan behar du’, esaten zuten guardia zibilek, eta nik: ‘Ez, gure gizona ez da ohetik jaikiko hori esateko’”

Kontxi Izeta

ra eginik, Zestoan beti Astilleros-Izeta sendia, 1976ko apirilaren 10eko gertakari saminak eta, denak har, distantziak, bi familien arteko harremanaren haria eten zuten. “Joan ziren Zestoatik, eta kito, galdu egin genuen familia haren arrastoa”, Kontxi Izetaren hitzetan.

BIKTIMAK AZALERA

1997an hil zen Federico Astilleros Ocaña, haren alaba Marianek esan digunez. Garai berezia, inondik ere, biktimek -ETAK eraginak, denak har-, ordu arte ez bezalako protagonismoa hartu baitzuten, zenbait elkarte lanari gogor lotu zitzaizkionetik. Eta horretan, amaren protesta jaso behar izan zuen Marian Astillerosen. “Biktimak? Hemen biktima asko zauden! Hemen denak ditun biktima! Emakume hura ere [Felipe Suarez Delgadoren alarguna] goian zerua

eta behean lurra joan zunan. Zer daki-gu haien gainean? Familia hura bilatu beharra zagon!’. ‘Baina, ama, nondik hasi behar dut nik bila?’. ‘Besteek bilatzen ditizten, ba! Guk ere bilatuko ditinagu!’”. Horretan zen Kontxi Izeta, Marian Astillerosen ama, 91 urtekoa gaur egun. Eta ama teman, eta hamabost urte egin ditu Felipe Suarez Delgadoren familia bilatzeko bidean Marian Astilleros Izetak, amaren mandatua bete nahirik.

Batera jo, bestera jo ekin zion Marianek. “Feliperen heriotza-agiria eskatu, familia nongoa zen barrundatzen hasi, eskutitzak hona eta hara idatzi haien helbideren bat azaltzen ote zitzaigun, telefonorik... Oporretan Gaztela aldera-edo, Palentziara-edo, joaten ginenean, galdezka ere ibili izan ginen senarra eta biok!”. Emaizta, etsipengarria, hutsaren hurrena. Bata bestearen ondotik joan ziren urteak, amaren tema eta seta hura gorabehera: “Familia hura bilatu beharra zagon!”.

2016an Polizia Gehiegikerien Biktimen Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, Marian Astillerosen gogorarazi digunez. 1976 eta 1999 artean izandako giza eskubideen urraketak aitortzea eta urraketa horien biktimei ordaina ematea zen legearen zioa. Espainiako Gobernuak, ordea, helegitea aurkeztu zuen, eta arauaren hainbat atal behin-behinean etenarazi zituen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak. Ondoko urtean, Madrilgo gobernua eta Jaurlaritza ados jarri ziren: Jaurlaritzak legea aldatuko zuen, Madrilek helegitea kentzearen truke. Honenbestez, lege berria indarrean, behar ziren tramiteak bete zituen

Marian Astillerosek, eta biktima aitortu zuten Federico Astilleros Ocaña.

Baina ez zen nahikoa, Felipe Suarez Delgado zenaren familia zen koska, eta halaxe adierazi zuen Marian Astillerosek aukera izan zuenean: “Jaurlaritzaren aurrean gure aita Guardia Zibilak tirokatu zuela azaltzeaz batera, Felipe zenaren familia bilatu beharra zegoela esan genuen. ‘Bai, baina hori oso zaila da... Non-dik hasi bila?’, esan ziguten Jaurlaritzan. Guk ere bagenekien zaila zela, horretan ibiliak ginen-eta hainbat urtean”. Hala ere, ez zioten bilatzeari utzi, baina han eta hemen miatu eta alperrik.

Marian Astillerosek ekin eta ekin, Eusko Jaurlaritzako teknikari Marian Sanchezekin konfiantza hartua zuen ordurako: “Eta beldurrik gabe esaten hasi nintzaion zer edo zer egin behar zela eta zer edo zer egin behar zela. Tematu egin nintzen neu ere, gure ama bezala! Kar, kar... Berak, behin, Feliperen [Suarez Delgado] berririk inon ez zela agertzen idatzi zidan, ‘lurrak irentsi balu bezala’, baina ez zegoela amore emateko prest ere esan zidan”. Argitzen hasi zuen arte. “Halako baten, [2016, apirilak 30], ahizpak hots egin zidan, berri bat irakurri zuela egunkarian, esanez Zarautzen Anjel Berazadi eta Felipe Suarez omen-du zituztela. Jo eta albistea eskaneatu eta Jaurlaritzara bidali nuen zuzenean. Mariani [Sanchez] esan, baina haiek ez omen zuten Zarauzko omenaldiaren berrik. Zarauzko Udalaren ekimena izana zen. Ni, harri-harri, hala ere”. Eta handik egun batzuetara, Jaurlaritzaren deia jaso zuen Marian Astillerosek, omenaldia izan zela Zarautzen, baina Felipe Suarez Delgadoren familiarik ez zela han izan; are, ez zutela harremanik.

Jaurlaritzako Marian Sanchezek eta Zestoako Marian Astillerosek ez zuten

“Eusko Jaurlaritzaren deia jaso nuen berri emanez, eta ez nuen erreakzionatu. Uste dut minutua egin nuela isilik, ez nekien zer ari zitzaizkidan”

Felipe Suarez Perez

etsitzeko asmorik. Lurrak irentsitakoaren bila segitu zuten: “Feliperen heriotza-agiria eskatu zidan Jaurlaritzako Marianek. Han, Leongoa ageri zen azkeneko helbidea. ‘Leon ere ikaragarri aldatuko zen harrezkero... Zenbait dei egingo ditut, hala ere’, esan zidan berak, eta nik: ‘Jakina, ba! Askoz hobeto zuk Jaurlaritzaren izenean hots egitea, ni inoren izenean ibiltzea baino. Kasu handiagoa egingo dizute zuri’. Eta holaxe, Marian Astillerosek kontatu digunez: “Hurrena, Jaurlaritzako Marianek esan zidan Leongo kultur etxe batera deitu zuela, adineko batekin hitz egin zuela, Lolo-edo zuen izena, zer edo zer entzuna zeukala, joango zela heriotza-agirian ageri zen kalera... Handik egun batzuetara, Jaurlaritzaren deia jaso nuen. Dena delako hura joan zela kale hartara, buzoietan begira ibili zela, txirrina joka ere bai, eta Feliperen arreba Mara kontaktatu zuela. Hark Feliperen semearen telefonoa eman zion Jaurlaritzako Mariani”. Eta honek, bistan denez, hildakoaren seme Felipe Suarez Perez hitz egin zion. 2018. urtea zen.

SUAREZ-PEREZ FAMILIA, VALLADOLID ETA PALENTZIAN

Felipe Suarez Perez da, Zarautzen hildako Felipe Suarez Delgadoren seme gehiena. Hark jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren deia: “Eta deia jaso, eta ez nuen erreakzionatu. Uste dut minutua egin nuela isilik, ez nekien zer ari zitzaidan esaten”. Berrogeitaka urte eta gero, gobernu batek –EAEkoak, ez Espainiako Gobernuak, hala ere–, aita Guardia Zibilak hil ziela esango zuen. Felipe Suarez Delgadoren semeak hitz jasa jaso zuen dei hartan: “Poliziaren indarkeriaren biktima, aitortza, kalte-ordaina... Ez dakit zer esan zidaten ere”. Jabetu zen, hala ere. Hitz egin zuen ama-arrebekin. “Baita zera ere!”, amak, “Nola ariko dira, ba, horretan?! Hainbeste urte eta gero! Gure gizona, zuen aita, bidegabe hil zutela inor esaten nola hasiko da, ba, orain!”. Laster, beste dei bat jaso zuen Felipe Suarez Perezek, Marian Astillerosena. Luze hitz egin zuten, baietz, egiaz ari zirela, legearen berri eman zion Astillerosek Suarez Perez, elkar ikustea hitzartu zuten garai bateko bi adiskide haien seme-alabek.

Harrezkerokoa, kasik jakina da. Felipe Suarez Delgadoren familiak Eusko Jaurlaritzak agindutako urratsak egin, eta hildakoa biktimatza aitortu zuen EAEko gobernuak.

2021eko ekainaren 26an Euskalduna Jauregian egindako ekitaldian giza esku-bideak urratu zitzaizkien 35 pertsona omenu zituzten, biktimatza aitortu.

Besteak beste, Felipe Suarez Delgado, 1976an Guardia Zibilak Zarautzen tiroz hila, Federico Astilleros Ocaña zauritu zuten ekintza berean. Eusko Jaurlaritzaren erreparazioa eta errekonozimendua jaso zuten 2019an, 1976an hilek. ●

Euskaraz hezi, euskaraz bizi!



EMUN KOOPERATIBAK 25 URTE

Tailerrak euskalduntzetik, gai sozialetan eragitera

Emun lan mundua euskalduntzeko helburuarekin sortu zen 1997an. Genero berdintasuna, parte-hartzea, gizarte erantzukizuna... beste hainbat esparrutan ere eragile da gaur egun, berrikuntza sozialaren hariari tiraka. Kooperatibako lau langilek haien bizipenak kontatu dizkigute, eta hitz egin digute genero berdintasunari lotutako legeez bezala euskararen esparruan ez dauden eskakizunez.

 JON TORNER ZABALA

Arrasateko egoitza nagusian bildu gara Onintza Legorburu eta Inma Elexpurrekin, eta Andoingo bulegoan Mikeldi Zeberio eta Maite Indarekin. Lau aholkulariek kontatutakoak josi ditugu lerrootan.

Onintza Legorburu, 2018tik Emunen: Unibertsitate ikasketak burutu ostean jatetxe batean aritu nintzen lanean, eta bat-batean, 24 urterekin, bazoaz 1.000 langileko fabrika handi batera, hango usaina, zarata... haluzinatzen nuen. Tontakeria dirudi, baina zein arropa jantzi ere ez nekien. Bertan uzten dizkizuten bota bereziak, horiek dira zure erremin-tak. "Zer demontre ari naiz ni oinetako hauekin?", pentsatzen nuen. Bi mundu paralelo elkartzten dira. Jende unibertsitarioa, bulegoetan egotera ohituago dagoena, eta bagoaz, ez dakit, Ederlango fundizio batera adibidez, leku iluna, sua, jendea zikin-zikin... eta zu, han, Euska-

raldiko ez dakit zer azaltzen. Irudipenadut, garai batean, Emuneko kideek askoz ere barneratuago zutela hori. Lehenbiziko euskara planak tailerretan-eta garatu ziren, langile euskaltzale asko zegoen, haizeak alde jotzen zuen, eta zu joatea hau eta beste azaltzera, munduko logikoena irudituko zitzaien. Gizartea aldatu egin da, ordea, eta lantokiak ere bai, euskararen aldeko mugimendua askoz ere apalagoa da. Lehen langileena joan eta Korrikarako dirua eskuz batzen zen. Izugarri lotsatuko nintzateke gaur egun hori egingo banu (kar kar kar).

Inma Elexpuru, 2000tik Emunen: Ni ohitua nago tailerretan ibiltzera. Sorpresa atseginak izan ditut. Bazoaz katean ari den langile batengana, makinaren aginte panela euskaratzeaz hau eta beste azaltzera, eta kasu egiten dizu! "Bai bai, segi, entzuten ari naiz", esaten dizute, begirada makinatik aldendu gabe. Benetan da eskertzekoa. Edo pandemian

bizitakoak. Egoitza nagusia Etxebarrian duen EIKAko langileek, esaterako, hainbat egun pasa zituzten etxean, Enplegu Erregulazioko Espedienteak jarri ziren abian, segurtasun-protokoloak etengabe aldatzen zituzten... Zuzendaritzak al-daketa horien berri eman behar zuen, eta komunikazio guztiak euskaraz egin zituzten. Igande gauetan ere deitzen ziguten, hau eta beste zuzen idatzita ote zeuden galdetzeko, ongi komunikatu nahi zituztela eta. Krisi gogorrenetan ere euskara lehenetsi zuten, meritu handia dute. EIKA 1999an hasi zen Emunekin, barne funtzionamendu osoa euskara hutsez izateko helburuarekin. Kontratazioetan jasoa dago, erdaldunak hartu hartuko dituztela, baina modu inklusiboan. Euskara ikasteko baliabideak jartzen zaizkie eskura, tailer osoa erdaraz hitz egiten jarriko zenukeelako bestela. Halaber, bazkideek euskaraz jakin behar dute, enpresako lehendakari izatera hel daitezke-eta, ezin da atzera egin.



Mikeldi Zeberio eta Maite Inda, Andoaingo Martin Ugalde parkean. 90 lagun ari dira gaur egun Emunen lanean, eta denen artean 40 unibertsitate ikasketa baino gehiago dituzte burutuak (soziologia, filologia, matematika, ingeniari, filosofia, antropologia...). Indaren hitzetan, hori da Emunen potentzialitateetako bat.



Onintza Legorburu eta Inma Elexpuru, Arrasateko egoitzan. Legorbururen hitzetan, Emuneko profila bada jende oso militantearena, euskara edo feminismitik datorrena, herrietan mugitzen dena.

Mikeldi Zeberio, 2007tik Emunen: Hizkuntza kudeaketa etengabea da. Erraza da atzera egitea, gizartearen bezala enpresatan ere errealtatea aldatzen doalako. 2016an utzi nion euskara planetan lan egiteari, gehiago heltzeko gobernantzaren ildoari. Zapore gazi-gozoa uzten zidaten. Batzuetan lan egiten nuen norantz gindoazen ziur jakin gabe; bezeroen aldetik ez nuen ikusten trakzio gehiegirik, eta halere, urtearen amaieran euren balorazioa positiboa zen. Nik

esaten nien: "Ez dugu gauza handirik egin, ordea". Baina eurek erantzun: "Ez ez, oso pozik gaude". Beste edozein hornitzaileekin ziur exigenteagoak direla, zergatik gurekin ez?, pentsatzen nuen. Irudipena dut maila bateraino ondo ikusten direla aldaketak, baina hortik aurrerakoak... Ekintza batzuk sinpatikoak dira, motibazioa bilatzen dutenak-eta, lehiaketak... asko gustatzen zaizkie, baina hasten zarenean egiturazko gauzak ukitzen...

Maite Inda, 2017tik Emunen: Iruditzen zait eraldaketa soziala eskatzen duten gai guztien lanketan daudela tope batzuen modukoak. Prozesu bati ekiteko arrazoiak desberdinak dira: horretan benetan sinesten dutelako hasten dira batzuk; giro sozialarekin bat egiteko besteak; edo errentagarritasun ikuspegitik, langileak trebatzeak enpresari mesede egingo diolakoan; edo marko legala betetzeko... Edonola ere, kasu guztietan, eraldaketa sozialak gauzak tokiz mugitzea eskatuko dizu, kontratazio irizpideak aldatzea, esaterako, genero kontuei heltzea, soldata arrakala, aniztasuna... Egiten duzuna modu berean egiten jarraitu nahi baduzu, ez ireki kaxa hori, aldaketak eskatzen dituelako.

M. Zeberio: Saltoki handietan, adibidez, ahalegin handia egin da paisaia linguistikoa euskalduntzen, kartelak eta beste; baina barrura begirako helburuetan, zuzendaritzako kideek eta langileek zer konbikzio duten, ba... Enpresetako pertsona gako batzuk oztopo izan daitezke, gauzak "ahaztu" egiten dituztelako, besteak beste. Esango nuke azken urteotan plan zehatzagoak egiten direla, lanketa espezifikokoak pertsona espezifikoekin.

O. Legorburu: Emunek historikoki eduki du lan egiteko modu bat, presentzialagoa, enpresen barrutik gehiago lan egitearena, behetik gora... Hori aldatu egin da, ordea. Orain, egitea baino, eragitea dagokigu. "Behetik gora" polita da belarrirako, baina gauza batzuk erreza- goak dira goitik behera eginez gero. Nik baldin badaukat alboan pertsonal-burua "hau horrela egin behar da" esaten, ba horrela egin behar da eta kito.

O. Legorburu: Berdintasun planak goitik behera sartu diren zerbait dira, legeak bultzatuta, baina asko dira berdintasunean sinesten dutenak, marketin estrategia hutsetik harago. Euskarari dagokionez, Bikain ziurtagiria lortzeko sartzen dira enpresa batzuk.

M. Zeberio: Lortu dira gauza batzuk, aireportuetan euskarazko oharra jartzea, saltokietako paisaia linguistikoa euskalduntzea edota erakundearen egoitzetako harrerako langileek lehen hitza euskaraz egitea, baina barrura begirako helburuetan... Proiektu batzuek ez dute izan jarraitkortasunik. 2008ko krisiak erraztu egin

PARTE HARTZEAN SINESTEN DENEAN

2004tik ari da lanean Emun Nafarroan. Iruñerriko merkatari-tza plana lehendabizi, eta ostean Fagor Ederlan Tafalla, Mapa... Mondragon Korporazioko kide izateak lagundu zuen enpresa horietan euskara planak abiatzen. Gobernantzari lotutako egitasmoetan ere ari da lan egiten Emun, eta zentzu horretan bi proiektu nabarmendu dizkigu Maite Indak: Bakaikuko Udalaren plan estrategikoa -Nafarroako Gobernuak saritua-, "Hemendik 10 urtera herria hutsik ikusi nahi duzu?" galderaren bueltan eratu zena, non auzolanaren balioa ordenantza batean jaso zuten; eta Mimukai, Larraun-Leitzaldean elkarlana eta tokiko garapena bultzatzeko proiektu komunitarioa. Nafarroan, Atarrabian ireki zuen lehenbizi

bulegoa Emunek, baina Berriozarrera lekualdatu ziren gero.

Gobernantzaren esparruan, Gipuzkoan egin du batez ere lan Mikeldi Zeberio. Esperientzia positibo moduan hainbat ekimen aipatu dizkigu, tartean Getariako terrazen ingurukoa, Oñatiko aurrekontuen bueltakoa edota Oiarzungo skate parkearena, non jende askok parte hartu zuen, ume eta gazte mordoxkak barne.

"Askotan galdetzen didate: 'Baina jendeak horrelakoetan parte hartzen al du?'" dio. "Herriarrentzat gai inportantea baldin bada, bai, areago instituzio horrek ibilbide bat duenean egina parte hartzearen inguruan, sinesgarritasuna duenean horrelako prozesua abiatzeko". Sarri, arrakala sortzen da herriarren eta administrazioaren ar-

tean, mesfidantza ere bai batzuetan, eta erakunde asko ari da bizilagunen hitza aintzat hartzen, nahiz eta guztiek ez duten parte hartzea modu berean ulertzen. Emuneko kidearen hitzetan, "ez da nahikoa" webgunean informazioa publikatu eta udaletxeko oholean iragarki bat eta erreklamazioetarako beste zerbait jartzea, 2016ko EAEko udal legeak markatzen dituen gutxieneoak betetzearren.


Onintza Legorburu "Debagoiena 2030" proiektuan ari da lanean, 2050erako adimentsua, inklusiboa eta klimatiko-ki neutroa izango den Debagoiena baterantzko eraldaketa bultzatzea helburu duen lankidetzaren sarean. Trantsizio energetikoa sustatzeko Arrasaten, Bergaran edota Oñatin abiatutako prozesuak aipatu dizkigu, besteren artean.

zuen euskararentzako partidak murriztea. Iruditzen zait erlaxatu egin garela; Emunera eskaera gehiago etortzen da berdintasunetik, euskaratik baino.

M. Inda: Geroz eta leku gehiagotatik deitzen digute, eta argi dago legeari lotuta dagoela hori. Nahiko genituzke euskararentzat horrelako neurriak. Betiko zailantza da: noraino egin behar da arautu edo derrigortu, eta noraino sustatu? Baina, besteentzat baliagarria dena, zergatik euskararentzat ez?

Euskararen esparrutik nator ni, eta ari naiz haren normalizaziorako ezauzgarriak baliatzen genero berdintasun planak lantzeko, zapalketak orekatzeko estrategiak-eta. Eta alderantziz. Mainstream edo zeharkakotasunarena -berdintasun politikak txertatu behar dira erakunde bateko sail guztietan-, adibidez, nola egin euskararekin? Generoak definitua du estrategia hori, zer den mainstream, nola egituratu behar den, prozedurak, baliabideak. Legeak berak ezartzen ditu.

M. Zeberio: Hizkuntza gutxituen kasuan badira bi marko: instituzionala (*Euro-pako hizkuntza gutxituen karta*, gomen-dioak jasotzen dituen), eta *Hizkuntza*



Inma Elexpuru, EIKA kooperatibako langileari azalpenak ematen. Hainbat enpresa barne-funtzionamendua euskaraz izan dadin egiten ari diren esfortzua nabarmendu digu Emuneko aholkulariak.

eskubideen deklarazio unibertuala (herri eragileek 1992an sinatua Bartzelonan), baina ez dira legez betearazleak, ez dago derrigortasunik.

M. Inda: Hemen egin da sustapen politika baten alde, belaunaldi berriak eus-

kaldunduta gizarte osoa euskaldunduko zelakoan; tesi horrek, ordea, huts egin du. Ez da egon derrigortasunik, sustapen politikak baizik. Badaude euskara planak bideratzeko laguntzak, baina legerik ez. Berdintasunari dagokionez nazioartekoa da markoa: gizartearen %50ak

pribilegio gehiago ditu gainerako %50ak baino. Aipatzen da, esaterako, egoeraren adierazpenik gordinena biolentzia matxista dela. Euskararen marko legala ez dago hain definitua.

M. Zeberio: “Hizkuntza ordezkapena” moduko terminoak aipatuz gero, ausardia gehiagorekin jokatu litzateke neurriak hartzerakoan. EAEko Estatutuak berak dio: euskara eta gaztelania dira hemengo hizkuntzak. Estatuan, arkitektura juridikoa goitik beherakoa da, goikoak jarritako mugetatik ateratzen bazara... Konstituzioak berak jasotzen du gaztelania ikasteko derrigortasuna eta gainerakoak hitz egiteko eskubidea.

O. Legorburu: Berdintasunarekin askoz ere sentsibilizazio handiagoa dago euskararekin baino, gizarteko beste esparruetan bezalaxe. Noski, kontrakoak badaude, eta oso kontrakoak dira, gainera, *haterrak* dira oso *haterrak*, euskararen kasuan bezalaxe. Ez dira asko, baina zarata handia ateratzen dute, hormak jartzen dituzte... Orokorrean, ordea, ez dago azaldu beharrik zergatik abiatuko den berdintasun plana. Noski, diskriminazio positiboko ekintzak egiten hasten garenean azalpen gehiago eman beharko ditugu (kar kar kar). ●

KOOPERATIBEN IZAERAK, LEGEAREKIN TALKA

Gaur egun, 50 langile edo gehiago dituzten Espainiako Estatuko enpresek berdintasun plana izateko bete-beharra dute.

Enpresek egoeraren diagnostia egin behar dute lehenda-bizi, zeinak azaleratuko dituen datu “delikatu” xamarrek: soldata arrakala zenbatekoa den, kontziliazio neurriak zenbatek har ditzaketen eta hartzen dituzten, plantillaren datuak generoari dagokionez, postu bakoitzerako zenbat gizon/emakume kontratatu diren azken urteetan, aginte organoetan zenbat gizon/emakume dauden... Ostean, diagnostikak azaleratutako hutsuneak betetzea helburu, berdintasun plana osatuko da, mahai negoziatzaileak onartu beharko duena, administrazioetan erregistratu baino lehen.

Kooperatibetan –Emunen bezero askoren kasuan– zer ari da gertatzen? Sindikaturik ez dagoenez, zailtasunak daude estatuak markatutakoak betetzeko eta, ondorioz, lizitazioetan plana izateak emango lituzkeen puntuak lortzeko. Mahai negoziatzailea eratu eta plana erregistratzeko kooperatibak derrigortuta daude sektorean nagusi den sindikatuari dei egitera, baina horrek esan nahi du enpresaz kanpoko norbaitek barne-informazioa eskuratu eta genero gaiei buruzko erabakietan parte hartze zuzena izango duela.

Emunek prozesu osoan hartzen du parte: mahai negoziatzaileak gidatzen, diagnostia egiten, eta plana osatu, erregistratu eta inplementatzen.



**Ahoan igartzen da
bihotzak zer duen egarri**

943 73 71 91 · euskara@legazpi.eus
www.legazpi.eus



“ ”

Aspergarria da pentsatzea harremanak antolatzekeo modu bakarra dagoela”

Harreman-anarkia

Sexualitatea askapen pertsonalerako eta iraultza kolektiborako motorra izan daitekeela defendatzen du Sandra Bravok, *Hablemos de poliamor* (Hitz egin dezagun polimaitasunaz) plataformaren abiarazleak. Kontzientzia feminista da ez-monogamia eraldatzailea izateko bermea, ezinbestekoa jotzen baitu botere-harremanak identifikatzea eta zaintzetan arreta jartzea.

✂ JUNE FERNÁNDEZ 📷 VICTOR SANCHÍS

Bere liburuaren azpitituluak iragartzen dituen gaietan aditua da Sandra Bravo kazetaria: polimaitasuna, sexualitatea eta feminismoa. Dibulgazio lan handia egiten du sare, hitzaldi eta tailerretan, *Hablemos de poliamor* plataformatik. Gainera, Gestalt terapian duen prestakuntza erabiltzen du harreman ez-monogamoak dituzten edo horiek esploratu nahi dituzten pertsonen laguntza eskaintzeko.

Todo eso que no sé cómo explicar a mi madre liburuan (Amari nola azaldu ez dakidan hori guztia, Plan B, 2021) bere ahalduntzean eta kontzientziazio politikoan bidelagun izan dituen egile feministak biltzen ditu: Brigitte Vasallo, Irantzu Varela, Norma Mogrovejo, Laura Latorre edo Virginie Despentes, besteak beste. Mugimendu feministari eskerrak ematen dizkio, kontziente delako iraganean bera

bezalako emakume askeak sorgin-ehizan erre zituztela, adulteroak izateagatik atxilotuak izan zirela edota bisexualak izateagatik psikiatrizatuak. Bilboko ANTI liburu-dendan egindako aurkezpeneko solasaldiaren moldaketa da hurrengoa.

Gaur egun ez gaituzte sutan erretzen, baina estigma oso latza da oraindik. Horri aurre egiteko balio izan dizu liburua idazteak?

Promiskuoa naizela eta harro nagoela ozen esatea irainaz jabetzeko modu bat da, *queer* mugimenduak egin duen ariketa berbera. Adierazi nahi dut ez dagoela ezer okerrik nigan, nahiz eta besteek pentsatuko duten biziotsua naizela, konpromisoari beldurra diodala edo benetan maitemintzen ez dakidala. Aniztasuna zoragarria da: erakusten du aukera dugula nortasuna, afektuak eta harremanak oso

modu desberdinetan irudikatzeko eta bizitzeko. Mundu guztiarentzat harremanak antolatzekeo modu bakarra dagoela pentsatzea aspergarria da; ezinezkoa da denok molde berera egokitzea. Halaber, ahalduntzailea da bizipenak konpartitzeko eta ikusarazteko ariketa, “niri ere gertatzen zait” pentsatuko dute askok. Horrek lagunduko digu geure burua babesten hurrengo argudioaren aurrean: hain arraroak garela, ezen inork ez baita maite izango.

Oso zaila da ez-monogamiaren armairutik ateratzea, batez ere familia esparruan, ezta?

Nire herrira joan eta Maria andreak galdetzen didanean ea mutil-lagunik dudana, gogoia ematen dit esateko: “Ea nola azaltzen dizudan. Badituzu hamabost minutu bisexualitateaz eta harreman-anarkiaz hitz egiteko?”. Nekeza da armairutik etengabe atera behar izatea. Zuhurra da baloratzea noiz merezi duen; aurreikus-tea zein indarkeria jasango dugun, zer irabazi edo galera izango ditugun. Gainera, pertsona batzuek ezin dute beren jatorrizko familiarekin duten harremana eten, arrazoi materialak edo emozionalak medio. Liburuak ez dit balio izan nire familiarekin armairutik ateratzeko, nahia-go baitute ezer ulertu ez dutelako itxura egin eta burua noiz egonkortuko dudana galdetzen jarraitu. Ez dute nire bizi-eredua ulertzen, pentsatzen dute egunen ba-



tean konturatuko naizela oker nengoela, familia zoriontsua osatu behar dudala, ahal dela gizon batekin edo sikiera emakume batekin. Izan ere, horrela jarraitzen badut, nola izango naiz guraso? Norekin zahartuko naiz? Sarritan galdetu didate: “Eta etorkizunean, zaharragoa zarenean, nork maiteko zaitu?”. Jende askok, hala espero dut. Nire izeba ezkongabeak izan zuen estigmarekin lotzen dut.

Liburuaren izenburuak kirrinka egin dit, polimaitasuna moda millenniala balitz bezala interpreta daitekeelako.

Arrazoia duzu: ez dugu ezer berririk asmatu, asko jorratu zen gaia [XX. mendeko] iraultza sexuarean, maitasun libreaz hitz egiten zenean. Baina aurreko esperientziek ez dute ia ikusgarritasunik izan aktibismotik kanpo. Badira monogamoak ez diren familia asko, baina indarkeria saihesteko nahiago dute jendaurrean familia normatibo gisa agertu. Premiazkoa da horien kontakizunak berreskuratzea eta zabaltzea.

Hautzarroan sexualitatea nola bizi izan zenuen kontatzen duzu lehen kapituluan. Hogeita hamar urte geroago, sektore kontserbadoreek sexu-hezkuntzako ekimen guztiak boikoteatzen dituzte.

Sexu-hezkuntzak zeharkakoa izan beharko luke eskola-kurrikulumean, ez bakarrik irakasgai bat, eta orain ez dago hori ere. Zorteduna zara zure zentzora pertsona *molo* bat iristen bada tailer edo hitzaldi puntual bat ematera. Sexu-heziketa oso bideratuta dago kondoira, koitora, sexu-bidezko infekzioak eta haurdunaldiak saihesteko moduetara. Beldurra da sexu-hezkuntza horren ardatza: zure burua babes ezazu, sexua arriskutsua delako. Bestalde, ez da hezkuntza emozionala lantzen: ederra izango litzateke hautzarotik irakastea adostasuna zer den, inork ez duela zure gorputza ukitzeko eskubiderik zuk nahi ez baduzu; hasteko, ez dizkiozula zertan eman behar bi musu heldu bati. Umeei azalduko nieke plazererako eskubidea dutela, eta adin bereko haurren artean gorputzak esploratzea ez dela batere txarra, modu adostuan egiten bada.

Esango nuke umeek plazera bizitzeko duten moduaz asko dugula helduok berrikasteko...

Umeen sexualitateaz hitz egiten denean, asaldatzen gara, uste dugulako guk egiten ditugun gauzak egingo dituzte-



“ ”

Promiskuoa naizela eta harro nagoela ozen esatea irainaz jabetzeko modu bat da

la. Nire ustez, askoz ere originalagoak dira. Ahazten zaigu giza sexualitatea koi-to heterosexuala baino askoz zabalagoa dela. Asexualitatea ere barne hartzen du, erabat ikusezina dena. Badirudi gaizki dagoela sexua oso gustuko izatea, baina baita irrika sexualik ez izatea ere. Horrek pertsona asexualak eraman ditzake erru handia sentitzera eta nahi ez dituzten sexu-harremanak izatera.

Pornoa baino kezkarriagoa iruditzen zaizu maitasun erromantikoaren propaganda.

Laranja-erdiaren mezua oso zabaldua dago, baita heterosexualak ez diren harremanetan ere. Zure bikoteak dena eman behar dizula pentsatzeak lagunak ez zaintzera eramaten du eta, horrek, isolamendura. Orduan, dena bikoteki-dearekin egiten baduzu eta harreman horretan indarkeria badago, norengana joko duzu? Hori iruditzen zait eredu monogamoak duen gauzarik arriskutsuena-tako bat. Gainera, sinesmen oker gehiago daude gizartean errotuak, hala nola “los

que se pelean se desean” (borroka egiten dutenak elkar desiratzen dute) edo etxe guztietan egosten direla babak. Hala, bikote esparruan onargarriak iruditzen zaizkigu beste edozein harreman motatan inoiz justifikatuko ez genituzkeen indarkeriak. Bestetik, maitasun erromantikoaren propaganda medio, zaila egiten da onartzea ez garela zoriontsuak, eta horrek mina eta indarkeriak isilaraztera eraman gaitzake.

Polimaitasunaz hitz egiten duzu, berba ezaguna delako, baina harreman-anarkian kokatzen zara. Zertan datza?

Anarkismo politikoaren oinarrietatik datorren filosofia da. Harremanak nola-koak izan behar duten zehazten duten aginduei uko egitean datza, hala, pertsonen arteko loturak zabaltzeko eta dibertsifikatzeko. Ikasi dugu norbait bikotekide gisa etiketatzen dugunean, gehiago maitatu behar dugula, harekin bizi eta umeak izan behar ditugula. Aldiz, norbait lagun gisa etiketatzen dugunean, ulertzen da ezin dugula sexu-harremanik izan berarekin. Harreman-anarkiak etiketen kortsetik urruntzera gonbidatzen gaitu, eta ikustera pertsona bakoitzarekin zer partekatu nahi dugun, elkarrekin zer egitea gustatzen zaigun. Ez bakarrik sexu- edo maitasun-arloan, baita jatorrizko familiarekiko harremanetan ere, adibidez. Gainera, begirada estruktural interesgarria iruditzen zait, harremanak kokatzen dituelako testuinguru soziopolitiko kapitalista, patriarkal, arrazista eta kapazitista.

Liburuan egiten duzun galdera itzuliko dizut: nola oreka ditzakegu askatasun indibiduala eta erantzukizun afektiboa?

Patxadaz hartzea da gako bat. Oso azkar bizi gara, eta arnasestuka zoazenean ez dakizu ezta zer sentitzen duzun ere. Zaila da gelditzea eta harremanak behatzea: ondokoa arduraz zaintzen ari ote naizen, neure burua zaintzen ari ote banaiz... Pilotu automatikoarekin ez bizitzea da kontua. Nire ustez, gizarte kapitalistak inposatzen duen abiadurak asko oztopatzen du pertsonen arteko harremanak zaintzea eta autozainketa. Halaber, garrantzitsua da harremanetan ditugun pribilegioak identifikatzea. Adibidez: edertasun normatiboa; terapia psikologikoa egiteko aukera; dirua eta denbora izatea parranda egiteko edo aisialdi mota jakin baterako; adin eta bizi-esperientzia handiagoa izatea edo, besterik gabe, gizon heterossexuala, zuria eta boteretsua izatea. Familia heterossexual ez erantzunkide batean, harremana irekitzen bada, nork izango du denbora gehiago beste harremanak bilatzeko?

Zer egin dezakegu erruarekin?

Bereziki emakumeen kasuan, kulpak asko mugatzen du sexualitatea.

Gure burua entzuteko denbora eta patxada dugunean, ikus dezakegu zer forma duen erru horrek, zer esaten ari zaidan, gehiegi puzten ari naizen... Lagun artean errua sozializatzek asko lagun dezake. Sarri arau sozialek pizten dute errua, esan digutelako zer dagoen ongi eta zer gaizki. Gaztetan monogamia ulertzen eta praktikatzan saiatu nintzen, baina ez nuen lortzen, eta erruak jan egiten ninduen. Esan nuen arte: "Agiar harremanak beste modu batera bizi daitezke".

Beste kulpak mota bat sumatzen dut giro feministetan eta *kuirretan*:

bikote-harreman monogamoa edo sexu praktika konbentzionalak izateagatik konplexu moduko bat.

Liburuan hurrengoia ohartarazten dut: helburua ez da agindu batetik irtetzea beste batean sartzeko, begirada eta aukerak zabaltzea baizik. Badirudi bollera onaren, feminista onaren edo polimaitale perfektuaren karneta atera behar dugula. Hala, jarraitzen dugu "ondo" eta "gaizki" dagoena markatzen eta besteen hautuak epaitzen. Saia gaitezen zapaltzen gaituzten egiturazko indarkerietatik ikasten.

Eta nola landu ditzakegu zeloak?

Askotariko emozioak deskribatzen dituen aterki-terminoa da "zelok": abandonuaren beldurra, inbidia, segurtasunik eza... Ez dira deabrutu behar, baizik eta gure bizipenen eta gure eraikuntza emozionalaren isla direla ulertu, nola eraiki garen ulertzeko. Baliteke egoera jakin batek iraganeko beldurrak piztea, edo baliteke jeloskortasunak abisatzea pertsona horrek txarto tratatzen zaituela. Aldiz, pertsona batek bere emozioak partekatzen badizkizu, kalitatezko denbora eskaintzen badizu eta ikusia sentiarazten bazaitu, horrek lasaitasuna eman ahal dizu. Bestalde, mito bat da polimaitaleok ez dugula zelorik sentitzen. Sentitzen ditugu, desberdintasuna kudeatzeko moduan datza. Egia da erlaxatzen garela ulertzen dugunean bikotekidea ez dela gurea, ez duela zertan gurekin bakarrik larrua jo eta ez gaituela zertan gu bakarrik maitatu behar. Dena den, pertsona baten bizitzan momentu desberdinak egon daitezke: esaterako, larritasun ekonomikoak eragiten duen antsietatea eraman dezakegu harremanetara. Gaztelaniara itzuli berri den liburu bat gomendatzen dut, *Una red segura* (Sare segurua), atxikimenduaz, traumaz eta ez-monogamiaz hitz egiten duena.

Binarismoarekin apurtzen duten familien aitortza legala lortu da zenbait herrialdeetan; esaterako, haurrak erregistratzeko orduan edo alargun-pentsioa kobratzeko orduan. Nola borroka dezakegu gurean?

Korapilatsua da, eta homosexualen arteko ezkontzarekin izan genuen eztabaidara garamatza: sisteman integratu behar garen ala sistema hori lehertu. Zentzuzkoa da lehen urratsa beste pertsona batzuek dituzten eskubideak lortzea izatea. Aldi berean, interesgarria litzateke horrekin konformatu baino, familia eta hazkuntza babesteko beste modu batzuk irudikatzea. Askok eztabaizatzea eta esperientziak partekatzea eskatzen duen inurri-lana egin beharko dugu.

Zure amari zuzendutako gutun batekin amaitzen duzu liburua. Ondo hartu al du?

Ezin okerrago. Ez du ulertzen zergatik kontatu behar dudan hau guztia lau haizetara. Orain zailagoa zaio ez ikusierena egitea, argitaratuta dagoelako. Ez du ulertzen nire ogibidea, nire estetika, ezta pertsona-sare zoragarri bat dudala, zainduko nauen mutil-lagun baten beharrik gabe.

Bila dezagun orduan elkarriketarako amaiera zoriontsu bat: zer poz eman dizkizu liburu honek?

Askok. Mezu mardoa jaso ditut esaten "Ulertu dut ez naizela hain arraroa, ez nagoela hain bakarrik". Batzuei, niri ez bezala, balio izan die amarekin adiskidetzeko eta gaiari buruz hitz egiteko. Mezurik politenak adin jakin bateko amenak izan dira, liburua erosi dutenak beren seme-alabak ulertzeko. ●



Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrial

Injintadura

Bioteknologia



www.goizper.com

BLOG BERRIA

AZKAINGO AEK

Azkaingo AEK-ko ikasleek abiatu dute irratsaioa eta ARGIAren webgunean irekitako blogean paratzen dute. Ondoren, material hori erabiltzen dute eskolan beste ariketa batzuk egiteko.



Larrungo uhinak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gau eskolatik plazara, plazatik oihan-zolara, oihan-zolatik mazelatara, mazelatik mendi-kaskora, mendi-kaskotik uhinetara... euskara zabaltzen ari gara". Azkaingo AEK-ko ikasleen bloga. Hori da ARGIAren sortu zaharra ez den blog berriaren aurkezpena. Azkaingo gau eskolako ikasleek euskara praktikan jartzeko duten formula berria da irratsaioa eta lehen bi saioak zintzilik daude *blogak.argia.eus/larrungo-uhinak* helbidean – ondoko QR kodearen bidez sar zaitezke–.

B1 eta B2 mailako ikasleek egiten dute lana, baina hastapen mailetakoez ere beren aurkezpentxoak egiteko tarte izaten dute. Dakitena erabiltzen hasi eta hizkuntza lau pareten artetik ahora eta kalera ateratzeko. Azkaine,

Oiartzun, Tafalla ala Gasteiz, oso panorama soziolinguistiko desberdinetan bizi gara Euskal Herrian eta jakitun Azkainen ez dela hain erraza euskara praktikan jartzea, Jon Olano eta Ibai Trebiño irakasleek beste sistema bat xerkatu zuten ikasleak euskaraz ari daitezen: irratsaioa. Ez bakarrik beraien entzuteko, ARGIAren blog bat ireki eta sortutako materiala bertan zintzilikatzeko, publiko.

"Ikasleek dute hizketa gaia hautatzen. Gidoi txiki bat prestatzen dute, ideia garrantzitsuak paperean idatzi eta hasten da grabaketa", dio Trebiñok. Gustura egiten dute. Blogean oraindik entzungai bi saio baino ez badaude ere, hirugarrena dagoeneko grabatuta daukate eta laugarren bat bidean.

ARGIAren edukiak irratietan

Bilbo Hiria

Lanaren ekonomia

Osteguna, 19:00etan

Ibaizabal Magazina

Osteguna, 12:20etan

Hala Bedi

Hizpidea

Asteartea, 8:30etan

Zebrabidea

Asteazkena, 16:00etan

Xorroxin

Karakola segi hola

Asteazkena, 19:00etan

Euskalerria irratia


Irrintzi plaza

Asteazkena, 15:00etan

"Material honek askorako ematen digu. Ez da euskara praktikan jartzea soilik, grabazioa amaitu ondotik ikasleek entzun egiten dute, egindako akatsak identifikatu eta hori baliatuz eskolan beste ariketa batzuk egiteko balio izaten digu", azpimarratu du irakasleak.

Herria aldizkarian ere egiten dituzte kolaborazio lanak eta irratsaioarekin ahozko tasuna, inprobisazioa, bat-bateko tasuna lantzen dituzten bezala, kasu honetan idazteko gaitasunak fintzen dituzte eta ikasleei laguntzen die ulertzen euskara ez dela zerbait anekdotikoa, zerbait fosila; euskara bizi dela, euskara bizia dela eta bizi daitekeela euskaraz. ●





Brontzezko beste esku bat, xehe-xehe



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Himyaritar Erresuma (egungo Yemen), K.o II-III. mendea. Wahab Ta'lab izeneko gizon batek brontzezko esku bat utzi zuen Zafar hiriko tenplu batean, Ta'lab jainkoari babesa eta ongizatea eskatzeko. 1983an aurkitu zuten eta British Museumeko bildumaren parte da egun. "Gorputz atal bat irudikatzen duen pieza batean jasotako idazkunik zaharrena" zen adituen arabera, Nafarroan Irulegiko eskua aurkitu duten arte.

Zafarreko eskua eta Irulegikoa brontzez eginak daude. Biek irudikatzen dute eskuineko eskua, inskripzioa eskugainean dute, eta ahurra ez dute hain landua. Tenplu batean bata, etxeko atean besteak, antzeko funtzioa zuten. Tamainaz ere antzekoak dira, baina Zafarrekoak bolumen eta pisu handiagoa du, baita askoz xehetasun gehiago ere.

Zafarreko biztanleen hizkuntza himyaritiera zen, baina, Arabia hegoaldeko beste herrialde batzuetan bezala, sabatar idazkera erabiltzen zuten testuetan. Eskaintza idazkunak, testu legalak eta graffiti laburrak batuta, sabatarrez idatzitako milaka testu iritsi zaizkigu eta, horri esker, adituek Zafarreko eskua- ren testua osorik itzuli ahal izan dute. Idazkuna toponimiaz eta izen propioz josita dago eta informazio asko ematen du. Eskuaren eskaintza Zafar izeneko tokian egin zutela esaten digu, Yemengo mendialdean, Ta'lab Riyam jainkoaren tenpluan. Eskuaren jabea Wahab Ta'lab zen, klan bateko kidea; klan hura tribu handiago baten parte zen eta tribuaren jainkoa Ta'lab zen. Arabia hegoaldean jainko-jainkosa paganoen gurtza egiten zuten garai hartan; gero etorriko ziren judaismoa, kristautasuna eta, azkenik, islama.

ESKUAREN JABEAREN OSASUN ADIERAZLE

Wahab Ta'lab komunitateko goi-mailako kidea zela ondorioztatu dute ikerlariek. Batetik, abizena jainkoaren izen bera



JADE KOEKOE - BRITISH MUSEUM / NAFARROAKO GOBERNUA

Ezkerrean, Yemengo zafar aztarnategian agerturiko eskua; eskuinean, Nafarroako Irulegiko Burdin Aroko herrixkan Aranzadik berriki aurkitu duena. Antzekotasunak dituzte, baina ezberdintasunak ere bai.

izateak bere estatusa adierazten du, eta, bestetik, botere ekonomiko handia izan behar zuen halako pieza ordaindu eta eskaintzeko. Brontzezko eskuak Wahaben eskua bera irudikatzen duela uste dute. Eta piezak hainbeste xehetasun dituzenez, haren osasunari buruzko hipotesiak egiteko aukera ere ematen du.

HIMYARITAR HIZKUNTZA DESAGERTU EGIN ZEN

Jeremy Field esku zirujauak Zafarreko eskua aztertu zuenean, lehenik eta behin ikusi zuen ez duela anputatutako esku bat irudikatzen; eskugaineko zain handituek adierazten dute odol zirkulazioa dagoela. Azazkalei erreparatuta, koilara forma zutela ikusi zuen eta hori anemiaren adierazle izan ohi da. Gainera, hatz txiki okerra hautsita zuela ere ondorioz-

tatu du. Halako xehetasunez egindako pieza batean ezaugarri horiek ezin zuten ausazkoak izan.

Finean, Irulegiko esku xumearen aldean, Himyaritar Erresumaren oparotasuna adierazten du Zafarreko eskuak. Himyar Arabiako estatu nagusia izan zen VI. mendera arte. Irulegiko eskuaren garai bertsuan sortua, Asiaren eta Erromatar Inperioaren arteko merkataritza gune garrantzitsua izan zen, intsentsu merkataritzak aberastua. Eskua egin baino pare bat mende lehenago Sabako Erresuma bereganatu zuten, eta, eskuaren garaian, Qataban eta Hadhramaut ere konkistatu zituzten. Baina, azkenean, ez ziren gu bezain zorioneko izan eta beren aberastasun nagusietakoa galdu zuten. Haien hizkuntza, himyaritiera, X. mende inguruan desagertu zen. ●

KALAMUA HEMEN DA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kalamua hemen da. Kalamutik (*Cannabis sativa*) datoz marihuana eta haxixa, besteak beste. Kalamua munduan gehien kontsumitzen den droga omen da. Legezko ardoak eta botikak kontuan izan gabe izango da... Gero eta estatu gehiagotan legezkoa da kontsumoa, kontsumitzailearen patrikaren eta gorputzaren osasunerako.

Kalamua hemen da. Kalamuarekin egiten da zuntz natural ezaguna. Gai horrekin egin izan dira ehunka urtetan gure itsasontziak gobernatzen zituzten soka, lokarri, txikota eta abar. Baita arropa eta papera bezala beste gauza askotarako ehuna ere. Eta bueltan dator.

Kalamua hemen da. Kalamuak (*Cannabis indica*) izugarritzko onurak dakartzatza osasungintzan. Ez da berdantza-bartekoa bere erabilera, eta indarrean dator bueltan. Gero eta gehiago darabilte sendagileek gaixoen osagai.

Kalamua hemen da. Izan ere nekaritzaren aiekatik ere onuragarria da oso. Lau hilabetetan hazten den kalamu golde batek 20-50 urtetan hazten den zortzi golde basok adina oxigeno askatzen du. Golde horrek berak lau golde basok adina paper ematen du. Kalamuaren paper hori oso ona da, sendoa eta iraunkorrenetakoa; zortzi aldiz birziklagarria da, zurarena, aldiz, hirutan besterik ez. Kalamua ia mundu guztian



landu daiteke, lur eta klima gehienetara egokitzen da; era berean, gaitz eta izurrite gutxi erasotzen dio, pestizida eta botika beharrik ez duelarik. Kalamua landu eta sortzea soja (*Glycine max*) egitea baino askoz merkeagoa da. Kalamu zuntzaren dohainak oso onak dira, lihoarenak baino hobeak, agidan, eta aproposa da oinetakoak, arropak, poltsak, lokarriak eta abar josteko. Egun plastikoa erabiliz sortzen ditugun ia gauza guztiak kalamuz egin daitezke; "kalamu plastikoak" ingurumena zaintzen du eta erabat biodegradagarria da. Eraikinen isolamendu termikorako erabiltzen da baita ere: erresistentea, malgua eta merkea da. Kalamua kosmetikagintzan ere erabiltzen da xaboiak eta abar egiteko, urik kutsatu gabe eta

ingurumena errespetatuz. Kalamudiak erradiazioak bereganatu eta jasotzen ditu; airea garbitzen du. Kalamua jaten duen aziendak ez du hormona laguntzailerik behar izaten.

Kalamuaren haziak proteina asko du eta itxuraz naturan ia aurkiezinak diren bi gai berak baizik ez ditu: azido gamma-linoleikoa eta edestina proteina. Zientzialariek honela diote: kalamu hazien olio pertsonak zuzenean digeritzen duen proteina, mineral, gantz-azido eta aminoazidoen iturri natural onena da. Eta ondoren dator gure osasunerako duen onura mordoa. Baina hori oin bikoetan ialetutako osasungileen esku uzten dut. Gero eta arrunta goa izango da kalamua gure bizitzetan. Kalamua hemen da. ●

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2022

SARI BANAKETA EKITALDIA
Kazetaritza eta Komunikazio ataleko sariak ezagutzera ematearekin batera, ohorezko mugarri bana emango zaie **Elixabete Garmendiari** eta **Patxi Baztarrikari**.

<http://rikardoarregikazetaritzasaria.eus/>

Eguna: **Azaroak 30, asteazkena.**
Ordua: **Basteroko ateak 18:50ean itxiko dira, eta ekitaldia 19:00etan hasiko da.**
Lekua: **Andoain, Bastero Kulturgunea.**

hitzen jostunak

XXXIV.

URMENDI HAUR ESKOLA

BERTAKO PRODUKTUAK ETA EKOLOGIKOAK
JANGELAKO 110 MENUETAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Aitzindariak izan ziren Oiartzungo Urmendi haur eskolan jangelako menuetan eredu osasuntsuago eta jasangarriago baten alde egiterakoan. 2011-2012 ikasturtean egin zuten lehen eraldaketa potoloa jantokian: “Urte hartan, Ekolapikorekin batera hasi ginen elikagai ekologikoak txertatzen eta gaiarekiko formazio saioak jasotzen”, azaldu du Iraia Etxebeste Madariaga haur eskolako zuzendariak. Hastapenetik gaur arteko bidean, ordea, pauso garrantzitsu gehiago eman dituzte elikaduraren alorrean, eta orain, beste jauzi bat ematear daude udalarekin elkarlanean: ekologikoaz harago, hurbileko ekoizleen produktuekin osatuko dute menua.

PAUSO TXIKI BAINA SEGURUAK

Menuan egin zuten lehenbiziko aldaketa barazki, zereal, lekari eta fruta ekologikoa sartzea izan bazen, haren ondotik, 2018-2019 ikasturtean, bigarren buelta eman zioten eta haragi kontsumoa murriztu zuten. “Animalietatik eratorritako proteina kantitateak gutxitu eta proteina begetalak gehitu genituen orduan”, gogoratu du Etxebestek. Bi pauso horien aurretik, gainera, formazio saioak egin zituzten irakasle eta gurasoein, eskola-



ko jangelan ez ezik, elikaduraren inguruko hausnarketa horiek eskolatik etxeetara eta herrira ere zabaltzeko asmoz.

“Aurten ematen ari garen pausoan, menuen osagaietatik harago joan eta hornitzaileei begira jarri gara”, dio zuzendariak. Oiartzungo Udalarekin eta Labore Oarsorekin batera ari dira ekimena aurrera eramaten, eta herri mailan elikadura burujabetzaren alde eta lehen sektorea bultzatzeko asmoz abiatu dituzten lanke-ta zabalaren parte da haur eskolako ere. “Udala eta Labore Oarso bildu ginen eta ikusi genuen herrian badaudela jantokiak, eskoletakoak eta zaharren egoitzakoak, eta interesgarria zela horietan bertako produktuekin lanean hastea”, adierazi

du Eneritz Arbelaitz Sarasti zinegotziak. Gune bakoitzaren egoera desberdina izanik, baina, bakoitzaren trantsizioa puntu banatik abiatuko da, eta horretan, Urmendi ari da akuilu lanetan.

HURBILEKO BALIABIDEEN
ALDEKO APUSTUA

Trantsiziorako bidean, azken hilabeteotan azterketa teknikoa egin du udalak: jangelan darabiltzaten elikagaiak zerrendatu, bakoitzetik zenbateko kontsumoa dagoen kalkulatu, prezioak begiratu, orain arteko hornitzaileak hurbileko ekoizle eta baserritarrekina ordezkatu... “Elikagai batzuk lehen baino garestixeago aterako dira, baina beste batzuk merkeago”, dio Etxebestek. Kalkuluak aterata, menuaren prezioa 14 zentimo besterik ez da igoko. “Huskeria bat, hor atzean dagoen guztia kontuan hartuta”. Izan ere, proiektuan parte hartuko duten ekoizleek bezero finkoa izanen dute urte guztirako, eta haien ekoizpena eta lurra ongi planifikatzeko aukera izanen dute modu horretan.

“Oiartzunen elikadura burujabetzaren bidean ematen ari garen pauso bat gehiago da hau, jarraipen bat, nolabait. Gure herriak eta inguruak bertako elikagaiekin bizitzeko aukera ematen digu, bertako ekonomia sustatzeko... Horren aldeko apustua da hau”, gehitu du zinegotziak. Erika kooperatibaren sorrera edota Lurbizi egitasmoa dira lanketaren beste hanka batzuk. ●

EUSKARALDIA
HUTSIZ ERORTZE GAIA
2022
INTZAK
INTZAN EUSKARAZ
INTZU
HONDARRIBIA

Hondarribiko Udala

Hondarribian euskaraz bizi!
Intzak, intzan euskaraz, intzu



“ ”

Gaiak nondik heldu eta zein tonu eman bilatzen dut

Agin Laburu

Gorputzaldi nekatuan, “bai baina” batean geratu omen da Agin Laburu BTN22an. Bere firmadun saiorik ez baina lanketa eta bide baten zantzuak utzi ditu, ale ederrekin batera.

ELI PAGOLA APEZETXEA

Amurrio azaroak 19

Saioko puntuaketa

Alaia Martin Etxebeste

676 puntu Amurion
(+ lehen itzuliko 729,5)=
1.405,5 puntu guztira

Aitor Bizkarra Ruiz

651,5 puntu (+677,5)=1.329

Oihana Iguaran Barandiaran

632,5 puntu (+688,5)=1.321

Onintza Enbeita Maguregi

632,5 puntu (+639,5)=1.272

Agin Laburu Rezola

624 puntu (+677)=1.301

Miren Artetxe Sarasola

595,5 puntu (+644,5)=1.240

Bañueta kiroldegia

1.250 entzule



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Bertsolari Txapelketa Nagusian kantatu duzun hirugarren aldia da. Bertsotarako nola harrapatu zaitu?

Bizi fase konplikatu batean. Aurreko urtetan ez bezala, dolu bat bestearen atzetik tokatu zait eta txapelketak triste harrrapatu nau. Bertso eskola indar eta motibazio gutxiarekin sumatu dut eta, lehen aldiz, neke puntu batekin ekin diot Txapelketari. Aurrekoak gosearekin hartu ditudan bezela, lehen aldiz adina nabaritu dudala esango nuke. Txapelketak aurrera egin ahala, hobeto sentitu naiz baina doluak ez dit utzi ni izaten.

Bertsokeran bilakaera dezentea egin dudalakoan nago. Duela 9 urte Aginek bertsoa errimatik egiten zuen eta konplexua zuen zer esanik ez ote zeukan. Gaur egungoak zer esan gehiago du eta uste dut errimak kendu egiten diola. Horri begirako lanketa egin dut.

Ze harreman duzu publikoarekin?

Adinean aurrera goazen heinean, gure gertukoak familia giroan datoz gehiago, ez koadrila giroan. Alde horretatik sumatu dut beste batzuen aldeko gogo gehiago ote zegoen. Esan behar dut, hala ere, oso ha-

Saioko bertsoaldi puntuatuen

Alaia Martin ganbarako gaian: Gaur arte ez zara ausartu. Oraingoan, erantzun egin duzu.

Doinua: ETAre su-etenetik.

I
Kafetegian nengoen
pozik nire aldartean
txikia (e)ta biok lehen
egonak ginen parkean...
Kafe bat eskatu dut (e)ta
eseri gara atean
(e)ta ondoan begiradak
mintzeko borondatean:
"oraindik ere titian?
Oraindik ere katean?"
(E)ta hala erantzun diot
defentsan ez, atakean:
Bularra emango diot
hala nahi dugun artean.

II
(E)ta ondoko bikotea
plantxatu egin da seko
eta altxa egin dira
minduenaren antzeko
bidali egin baditut
gu biontzako hobeto!
Azkenean ausartu naiz,
ez daukat hitzik jateko
bestela ere andreok
askotan gara kateko
eta ez dut deus entzun nahi
aholkuak dauzkat lepo!
Eskubiderik ez dute
iritzia emateko.

III
Bi urtetan pasatuak
hainbat ta hainbat une txar
zenbat titi-buru zauriz
eta zenbat sendabelar...
Baina ikasten joan gara
denbora dago galtzear
(e)ta oraindik ere zara
hain hauskor eta hain mehar...
Beraz, nire txiki polit
zuk behar banauzu behar
har zazu lasai titia
eta lasai egin negar
(e)ta nahi dugun eritmoan
askatuko dugu elkar.

rreman ona dudala publikoarekin eta Txapelketa honetan, bereziki Amurrioko azken agurra kantatu nuenean, oso maitatua sentitu nintzela. Uste dut erraztasuna dudala publikoarengana heltzeko, ez dakit zergatik, baina nabari izan dut. Horregatik, txapelketan, nire buruari bai, baina, entzuleari begira ere kantatzen dut. Ikuskizunaren alde egiteak beti ez dakartza emaitza hobeak baina hori ere aukera bat da eta ez dakit ahalegina eskertzen den edo ez baina estimatua sentitzen naiz.

Egon zen garai bat gure bertso-kera asko estimatzen zena eta korrontea alde duzunean errazago da dena. Gipuzkoako lehen finalean korronteak alde harrapatu ninduen, adibidez. Dena ez da korronte kontua, ordea, eta gero bide bat egiten saiatzen ari naiz.

Baduzu joera gaiet beste nonbaitetik heltzekoa, gaiari buelta eman edo lehen kolpean gehienek aukeratuko ez lituzketen bideak aukeratzekoa. Nahita egiten dudana zerbait da. Lehen aipatutako eboluzioa da, gaiak nondik heldu eta zein tonu eman. Beti ez da ongi ateratzen baina interesgarria da gizarteko beste gai batzuk ateratzen direlako eta beste ertz batzuetara iristeko aukera delako. Gainera, gaia askotan ez da gai-jartzaileak dioena bakarrik, atzean beste gai bat egon daiteke. Beraz, kontzienteki egingakoa da eta rol aukeraketa, beste hainbeste. ●

Ganbarakoa

Ze ahozapore utzi dizu BTN22k biharamunean?

Txapelketa osoan saio on bat egin ez izanaren garratza geratu zait. Ongi, baina ni ez naiz hau. Ez naiz hozka egiteko moduan aurkitu eta hasi eta buka ofizio bat ez egin izanaren pena geratzen zait, beti aldegin dit zerbaitek. Aurtengo gorputzaldiarekin txispa eta zorroztasun faltan sentitu naiz eta "bai baina" geratu naiz. Emaitzagatik baino gehiago, ez delako saio bat nire firmarekin joan.

Beste aldera, bakean nago nire buruarekin, momentu honetan, seguru asko, ez nuelako besterik. Hemendik aurrera geratzen zaidana da lehengo Agin berreskuratzea.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



BAIONA

Azaroak 26, larunbata, 17:00
 Lauga



Beñat
Gaztelumendi
Arandia

Eñaut
Martikorena
Lizaso

Julio
Soto
Ezkurdia

Nerea
Ibarzabal
Salegi

Unai
Agirre
Goia

Sustrai
Colina
Acedarrementeria

FINALAURREKOA



LIBURUA

Munduko genero-borrokalariai, batu zaitezte!



ULRIKE ANHAMM

BORROKALARI TRANSGENEROAK

LESLIE FEINBERG
(ITZ.: FERMINTXO ZABALTZA)

KATAKRAK, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

Fermintxo Zabaltzak eta Katakrak argitaletxeak Leslie Feinbergen *Mari-mutil handi baten bluesa* ekarri ziguten duela bost urte eta oraingoan egile beraren beste lan bat ekarri digute: *Borrokalariai transgeneroak*. Aurreko lana eleberria zen, egilearen bizitzan oinarritutako fikzioa, eta oraingoa saiakeraren eta historia dibulgazioaren artean koka daiteke. Eleberria oso lan gomendagarria da genero eta sexu disidentea den XX. mendeko Estatu Batuetako langile komunista trans baten bizi-ibilbideari gertutik jarraitzeko.


Saiakeran aipatutako eleberriaren oihartzunak topatuko ditugu tarteka, baina baita hori baino gehiago ere. Azken liburu hau ikerketa lan bat da, memoria ariketa bat, mobilizaziorako

dei bat: “Garaia da gure historien aditu gisa idatz dezagun. Sobera denbora da geure argia beste batzuen prismatik errefraktatu dela. Liburu honetan dudan helburua da arma bihurtzea historia, politika eta teoria, oso zapalduarik dagoen populazioaren zati batentzat”.

Dokumentazio lan handia egin zuen Feinberge transen historia osatzeko, zehazki, historian transak topatzeko eta euren borrokaren eta parte hartze soziopolitikoaren berri emateko. Haurtzaroan falta izan zitzaizkion erreferenteak eskaintzen ditu liburuan, transen irudi positibo eta eredugarriak erakusten ditu, eta sexu eta genero gaien inguruko hausnarketak eta elkarrizketak planteatzen ditu: “Zenbat ebidentzia dauden nabarmentzen dutenak genero eta sexu dibertsitatea globala dela, eta

trans pertsonak ohoratuak izan zirela behin, irainduak izan ordez”.

1996an argitaratu zen jatorrizko bertsoa eta ederra da ikustea zenbateraino ez duen gaurkotasunik galdu –Trans Lege espainiarraren proposamenaren inguruko polemikan argi egiteko balio dezake– eta zertan egon den bilakara bat –mugimenduen arteko egungo aliantzak: LGBTBIQ+ edo transfeminismoa–. Oso gomendagarria, hortaz, gai hauetan gehiago murgildu nahi duenarentzat eta historiaren bertsio hegemonikoak intolerantzia eta gorrotoa elikatzeko asmoarekin ezkutuan gorde dituenak ezagutzeko: “Emakumeen eta transen askapen mugimenduek elkar behar dute. Era guztietako sexu- eta genero-zapalkuntzen aurka borrokatu behar da batera, eta aliatuekin”. ●



MUSIKA

Bizi(g)arria



BURRUNDAYE



HARRIA

HARRIA

AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Harritu nau -zentzu onean- proiektu berri honek. Adiera edo zentzu asko ditu hitzak eta Bergaran Aitor Aldanondok harri baten inguruan sortutako honek baditu hainbat. Urteetan hartutakoa -bizitakoa- nolabait atera nahi izan du lan honetan.

Ibilbide musikala punk-harrian jarduten zuen Brigada Criminal taldean hasi zuen Aldanondok. Halako batean, baina, taldekideentzat harriaren pareko zama bihurtu zen estilo hura eta, batez ere, hori inguratzen zuena. Hala bada, erabaki zuten harriaren, rockaren, esentziara, jatorrira jotzea eta poseetatik kanpo Fiachras mugarrira sortu zuten. Gustura aritu ziren, eroso, baina harriaren azpian gehiago sakonduz eta

Iruñ(e)arriako lagunekin batera Bizar-dunak erditu zuten, folk basati samarra oinarri hartuta.

Gerora, Aldanondo urrundu da pixka bat agertokietatik eta denbora hori baliatu du barrura begiratzeko. Bizi izandakoek eta azalean zizelkatutakoek zer pentsa eman diote; disko honetan irudikatu nahi izan du heriotza gainditu osteko bizitza, hain zuzen ere, irakaspenei eta sufrimenduari irabazitako bizitza; alkimisten harria, funtsean.

Hala, Maitane, Ekaitz eta Guillerekin martxan jarri duen proiektu berri honetan abesten dio ikasitakoari, bizitakoari, eskertu beharrekoari eta ospatukoari. Gainera, bidean beste hainbat konplize ere batu ditu: Freddi Pelaez, Haritz Artola, Adolfo Alcocer, Domentx

Uzin, Iñigo Cabezafuego, Mikel Azkargorta, soka zortzikote bat eta beste. Horietako bakoitzak indartu du kantuen pisua, zama eta tonua.

Eta hemen, proiektuak orain arte erditu duen lan bakarrean, euskaraz abestutako hamabi kantuetan, badi-ra Aldanondoren ibilbidean esanguratsuak izan diren giroak, eta baita beste batzuk ere, ezezagunagoak. Calexico eta Morricone-ren antzeko giroak erdietsita; baita Shane McGowan zaharrarekin topa egiteko moduko kanturik ere. Bestalde, folka ere ez dute alboratu nahi izan, ezta Hertzainak-en eskolako artifiziorik gabeko rocka ere. Eta bada, horiez gain, psikodeliaranzko joera bat, kantu batzuetan oso nabarmena, esaterako. ●



Ni naiz naizena

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE HORMAN POSTER

Zein litzateke giza ondarearen souvenir-a?”. Izarrei begira egiteko galdera horietako bat da eta hori bera planteatu du Horman Poster kolektibo artistikoak euren azken antzezlanean. Galdera handia eta erantzuteko zaila, oso, bakoitzak bere erantzuna duela kontuan hartuta. Erantzuna emateko, Horman Posterrekoek, Antigone euren aurreko lanean ez bezala, erregistroa aldatu eta umoretik heldu diote gai honi.

Hiru protagonista ditugu (Matxalen de Pedro, Xanti Agirrezabala eta Maite Aizpurua) Euskal Herriko Bardeetako basamortuan, simulazio zientifikoen laborategia eta parke tematikoaren arteko kanpamentu batean. Astronautek egin bezala, eurek ere espazioko bizimodua erreproduzitu beharko dute hainbat egunez, beraien egunerokotasuna bideokamera batekin grabatuz eta, bukatzeko, hasieran planteatutako galderari erantzun beharko diote. Espazioko bizitzaren analogia horri esker bakoitzak bere

beldur eta ametsei egingo die aurre, espazioaren huts infinitura erantzun bat bidaliko dute.

Etorkizuna inoiz baino ilunagoa den honetan hainbat kontu interesgarri jartzen ditu mahai gainean obra honek. Etorkizunak, existitzen ez den eta inoiz existituko ez den gauza abstraktu horrek, beldurra, ezinegona eta antsietatea sortzen die antzezlaneko hiru protagonistei, hiru astronauta analogoei. Bakoitzak, noski, modu desberdinean egingo dio aurre gai transzendental honi. Bada etorkizunarekiko itxaropentsu dagoena, “Etorkizuna ala basakeria!” oihukatu eta gizateriari aurrerapauso bat eskatuko diona. Bada zulo existentzialistan murgilduta dagoena, baita orainaldi beldurgarri honetatik ihes egin nahi duena ere. Hiru jarrera horiek talka egingo dute kanpamentu analogoan, izarren hautsa dakarren meteoritoaren inguruan.

Pixkanaka-pixkanaka, baina, protagonista bakoitzaren motibazio pertsonalak

SOUVENIR

NORK: Horman Poster

NOIZ: azaroaren 10ean

NON: Arriaga antzokia (Bilbo)



agerian geratuko dira; kolektibotik gutxi eta norbanakotik asko dutenak. Azkenean hori baikara: “Bat gehiago denen artean, nahiz eta pixka bat berezia nahi izan”, Delirium Tremens-ek abestu bezala. Gizateriaren salbazioa beharko lukeena erdipurdiko turismo iraultzaile bilakatuko da, garenaren eta izan nahi dugunaren analogia batean.

Ahots asko altxatu dira azkenaldian etorkizun apokaliptikotik haratago ikus-tearen beharra aldarrikatzeko. Gizateriak biziraun nahi badu, etorkizuna izan nahi badu, honekiko errelato positiboak, utopiak eta mezu itxaropentsuak zabaltzen hasi beharko du, distopietatik, nostalgia erreakzionarioritik eta ezkortasunetik aldenduz. Beste mundu batekiko fedea mugiaraziko du gizateria, beste planeta batean zer lagin utzi nahiko genukeen baino, gurean nola bizi nahiko genukeen galdetzen hasi beharko genioke gure buruari, eta horretan fikzioa oso lagungarri izan daiteke. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA
IRATI MAJUELOK, LITERATURA KRITIKARIAK, ESANDAKO ESALDI BAT
IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE,
LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	9		6		7			
2				1				
1	5	6		3		2		
9		5	4	7			6	
3	1	2	8	5	6	9	7	4
6	7		1		3			2
5		9		6			1	
8			2	4	7	3	5	9
				1	9			6

ERRAZA


8		9	3		1			
	3			4	9		1	
6	8	4	2	9	3			
			7			8		2
	7			5			6	
4							8	
5			9	2		4		
6	8	5						

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Errua. 2. Ileak (bizkaieraz).
3. Izoztu. 4. Aldapa, malda.
5. Errenta, alokairu



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI
BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI,
HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				T	A	S	U	N
2	B				U	T	A	R
3	B	E				Z	L	E
4	I	B	E				R	A
5	G	A	Z	T				A
6	M	A	I	N	D			

EBAZPENAK

7	4	3	5	1	9	8	2	6
8	6	1	2	4	7	3	5	9
5	2	9	3	6	8	4	1	7
6	7	4	1	9	3	5	8	2
3	1	2	8	5	6	9	7	4
9	8	5	4	7	2	1	6	3
1	5	6	7	3	4	2	9	8
2	3	7	9	8	1	6	4	5
4	9	8	6	2	5	7	3	1

ERRAZA

9	6	8	5	3	4	2	7	1
5	1	7	9	2	8	4	6	3
4	2	3	1	6	7	5	9	8
1	7	2	4	8	5	9	3	6
3	9	5	7	1	6	8	4	2
6	8	4	2	9	3	1	5	7
2	3	6	8	4	9	7	1	5
7	4	1	6	5	2	3	8	9
8	5	9	3	7	1	6	2	4

ZAILA

PUZLEA: "DENOK DUGU BARBUAN
KRITIKARI TXIKI BAT. LIBURU BAT
ERAGITEN DU, ETA ZERBAIT PENTSATZEN
IRAKURTZEN DUZUNEAN ZUGAN
DUZU. KRITIKA, OINARRIAN, HORI DA."
5XS: 1. KULPA, 2. ULEAK, 3. LEITU,
4. PATAR, 5. AKURA.
HIZKI BERAK: 1. ERITASUN, 2. BEIRUTAR,
3. BEREIZLE, 4. IBERIERA, 5. GAZTERIA,
6. MAINDIRE

Olatz Aizpurua San Roman

ENARAK HABI



HEGOAK ASTINDUZ

Ez dakit gau txoria ote den, baina enaren gisan hegan egiten badaki Olatzek. Batetik bestera asko bidaiatu du ttipi-ttipitatik. “23 etxe aldaketa” zenbatuak ditu jaio zenetik, eta orain, osasun izurriteak zenbait enpresatan etxetik lan egiteko aukera erregulatu duenez, Ginebran zeudela Euskal Herriira itzultzeko atea zabaldu zitzaion. Etxeko laurek etorri ahal izan zuten, gelditzeko asmoz. Sei urtez beste inorentzat lanik egin gabe egon ostean, lan merkatura itzultzeko apustua egin zuen. Berak dio “momentu egokian leku egokian” egon izanak eskaini diola Aranzadi elkarteak *Enarak* egitasmoaren koordinatzailea izateko aukera. Hegoak astintzen segitu du.

“Enarak dira eskuartean dugun intsektizida naturala”

Biologia ikasketak egin zituen Olatz Aizpurua San Romanek (Hendaia, 1980) Nafarroako Unibertsitatean. Ia bi urte dira Aranzadi Zientzia Elkarteko *Enarak* proiektuaren gidaritza hartu duela, eta hegaztien hegoak astintzen dituzten gogo eta intentsitate berarekin kontatu digu beren egitekoa. Lezon abiatu zuten egitasmoa, herri erdigunean enara azpizuriarekin sensibilizazio kanpaina bat egiteko asmoz. Herritarrak kontzientziatzen eta gaia mahaigaineratzen hasi ziren, hegazti hauen funtzioen garrantziaz jabetzeko.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

Zertan jarduten duzue *Enarak* proiektuan?

Aranzadi Zientzia Elkartek 2021. urteko urtarrilean abiatu zuen egitasmoa, enaren egoera hurbiletik ikertzeko eta jendartea beren funtzioaz sensibilizatzeko, besteak beste. Enara azpizuria, sorbeltz arrunta eta enara arrunta daude gurean, azken hori landa eremuan. Fatxadetan buztinezko habia egiten du enara azpizuriak, eta, zenbait herritan, sensibilizazio kanpainarik egin ezean herritarrei traba besterik ez die egiten horrek.

Zergatik egiten dute traba enarek?

Azken batean, naturara joatea maite dugu, ez, ordea, natura gugana etortzea eta gure egunerokotasuna baldintzatzea. Ez dugu gure terrazan hegaztien kakarik topatu nahi, adibidez. Jendeak bota egiten ditu habiok, batetik, ekosistemari horrek egiten dion kaltea kontuan hartu gabe eta, bestetik, legez kanpokoa dela jakin gabe. Bartzelonan, esate

baterako, eraberritze lan bat egin aurretik, habirik ote dagoen ala ez egiaztatu behar da. Hamabost urte daramatzate norabide horretan lan egiten, eta hemen ere urratsak ematen ari gara.

Sensibilizatzeko usu hezkuntzara jotzen da, baina helduok ere badugu ardurarik, ala?

Dudarik gabe. Bi publikoekin egiten dugu lana guk, ezin delako karga guztia gaztetxoengan utzi. Batetik, udalek kontratatzen gaituzte herrian hitzaldi bat emateko, eta hortik guk talde bat sortzeko saiakera egiten dugu; lortu ere egin dugu zenbait herritan. Taldea sortzearen helburua da erabiltzen ditugun tresnak eskaintzea, eta enaren behaketan zein zainketan inplikatzeko. www.ornitho.eus zientzia ataria erabiltzen dugu natur informazioa bildu eta zabaltzeko, baita *naturalist* aplikazioa ere. Eredu parte hartzailean jarduteko tresna eranginkorrak dira.



"Orain teila berezi batzuk daude habia egitea ahalbidetzen dutenak, erreforma egiten badugu kontuan har genezake".

Eta haurrekin?

Haurrekin ordu bateko tailerrak egiten ditugu eta interes handia izaten dute. Hezkuntza zentroek deitzen gaituzte, edota herriko etxeek, eta adinaren arabera egokitzen dugu bai egitekoa, bai metodologia. Txikienekin hiru enara motak ezberdintzen ikasten dugu, marrazkien bidez, eta denbora ukanez gero habitxo bat ere egiten dugu denok elkarrekin. Halakoak udaberrian egitea da egokiena, hegazti migratzaileak baitira hiru hegazti horiek.

Hezkuntza ez formalean zer eskaintzen duzue?

Ahalegintzen gara zerbitzuak eskaintzen, baina ez da beti erraza izaten. Eratzunketa tailerra da hezkuntza ez formalean eskaintzen duguna. Eratzunketa bulegoa ornitologia sailean dugu. Espainia mailan, Aranzadiko eratzunketa bulegoa da beteranoena, 1949. urtean hasi baitziren. Donostian bertan, Zorroaga parkean, egiten ditugu eratzunketa tailerrak.

Zer da eratzunketa tailerra?

Sare bertikal batzuk jartzen ditugu eta

hegazti ttipiak korapilatu egiten dira bertan. Tuntu handiz, eratzunketa jartzen diegu identifikazio-zenbaki batekin eta igorle batekin: "Aranzadi - Donostia-San Sebastian". Eta guk ahalik eta informazio gehien sailkatzen eta gordetzen dugu hegazti bakoitzaren inguruan. Eratzunketak egoeraren argazki orokor bat egiteko balio digu, eta migrazioei buruz ere ikerketa garrantzitsuak egiten dira. Haurrei asko gustatzen zaie tailerra izaten da; ez da beti publikoarekin egiten baina batzuetan bai.

Zein da egungo egoera orokorrean? Errespetatzen al ditugu enarak?

Antolatzen ditugun tailer eta hitzaldiak etortzen den jendea jada sentibilizatua dago. Natura eta bere zikloak errespetatzen dituen jendea da. Oso zaila egiten zaigu axolarik ez duena hurbilarazten eta, zoritxarrez, jende multzo handia da. Enarek sekulako funtzioa betetzen dute. Eurak dira eskualdean dugun intsektizida naturala, egunero 800 intsektu jaten du bakoitzak, 55 kilo intsektu urtean. Ez dugu etxean moskitorik nahi, baina enara azpizurien habirik ere ez. Gure etxea eta gure

ingurua guk nahi bezala nahi ditugu, kontrolpean eta garbi. Zaila egiten zaigu partekatzea.

Baserrietan ere, ukuilu irekiak behar ditu enara arruntak, eta geroz eta ukuilu gutxiago egoteaz gain, gaur egun itxiak dira gehienak. Sorbeltz arruntak, bestalde, teilen azpian egiten du habia. Bertako zuloak erabiltzen ditu eta, egun, dena zulorik gabe dugu. Orain teila berezi batzuk daude habia egitea ahalbidetzen dutenak. Erreforma egiten badugu, adibidez, kontutan har genezake, sorbeltz arruntak habia egiteko lekuri gabe gelditzen ari dira eta.

Nola amaitzen duzue urtea?

Egindakoarekin pozik eta hedatzeko xedez. Gipuzkoan egiten dugu lan, bereziki, eta Bizkaia, Araba eta Nafarroara heldu nahiko genuke. Horrez gainera, Euskal Ornitologia Kongresua antolatu dugu azaroaren 26an eta 27an, Donostian, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti ikerketak aurkeztuko ditugu bertan. Hitzordu garrantzitsua da guretzat. www.ornitologia.eus atarian dago informazio guztia eta baita izena emateko aukera ere. ●

Irulegiko eskua erabiltzeko manuala

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Aze astea lagunok. Frenesi hutsa. Zenbat pasio, zenbat ilusio, zenbat sukar. Egia izango da azkenean ez dakit nork esan zuen –eta mundu guztiak Lenini egozten dion– zera hura: batzuetan hamarkadak pasatzen direla ezer gertatu gabe, eta derrepente egun batzuetan hamarkada osoak gertatzen direla. Gu beti bat gehiago: euskaldunen kasuan, mendeak gertatu zaizkigu azken egunetan. Irulegiko eskuaren aurkikuntzaz ari naiz, noski. Kristorena iruditu zaidala esan behar nuen, baina kristo aurrekoa da, joder, espresio berriak sortu beharko ditugu behingoz honen ondoren.

Aupa: aurreko paragrafoa idatzi duen tipo bera naiz, dutxa hotz bat hartu ondoren. Ondorengo guztia la-saixeago. Hain lasai, ezen esan baitezaket sortu den euforia-giroan irakurri dudak gauzarik zentzuzkoena Laura Mintegik *Berria*-n esandakoa dela: “Honakoa izan daiteke aukera on bat isilik egoteko eta ikerlariei lan egiten uzteko”. Antza denez, ordea, sinetsita daukagu denok esan behar dugula zerbait, benetan gaiarekin dabilzanek dena esan ez dezaten. Eta horretan aritu gara gehientsuenak jo eta fuego, zeinek handiagoa botako.

Sosegu pixka bat jartze aldera, esango dut nik ez nukeela Irulegiko eskuarekin ipurdia garbituko, besteak beste brontzezko pieza batek gorpuztaren atal sentsible samar horretan harramazka inportanteak eragin ditzakeelako. Baina ez nukeela esku hori erabiliko masturbatzeko ere, zeren *idem*. Beraz, gure anatomiaren jolasparkeari dagokionez, gauzak nahiko garbi daude: segi ezazue, orain arte bezala, hezur-haragizko eskuekin –zuenak izan daitezke edo horretarako baimena ematen diezuen pertsonenak–.



Gerritik gorako gauzeekin ezer ez dago hain klaro. Hasteko, patente eta marken erregistroan hiru eskaera egin dira jada eskuaren ustiapen-eskubideak lortzeko –“sorioneku” hitzarekin beste zazpi–. “Txundituta” agertu da ETBn Aranzadi zientzia elkarteko Juan-txo Agirre. Normala. Pasatzen dituzu urteak indusketan, segur aski hobetu zitezkeen baldintzetan lanean, eta zerbait inportantea agertzen delarik, aurrea hartzen dizu kristo guztiak –ai, ez, kristo aurrekoa dela– gauzari etekina ateratzeko. Jakintsuak eskua seinaltatzen duenean, listoak errapea ikusten du. Ez garela duela 2.100 urtekoak: %100 kapitalismo berantiarrekoa da jokatze modu hori.

Eta gero dago historia honen galdera filosofiko handia: zergatik? Alegia: zer dela-eta piztu du Irulegiko eskuak grina kasik futbolero hau? Euskal Herrian hain errotuta dagoen interes filologikoa etorri zitzaidan burura hasieran [barre enlatatuak], baina gero fuerteko pen-

tsatu eta ondoko ideia errun nuen: mitologia abertzale berri baten premiari aurkikuntza hau etorri zaiola diabetiko bati intsulina bezain ondo. Sorioneku eskua, ikurrinaren, armarri nafarraren edo arrano beltzaren koloreekin: laster nonahi ikusiko ditugulakoan nago.

Tamainan erabiliz gero, ez zaizkit guztiz gaizki iruditzen horrelakoak, hori ere esan behar dut. Nazionalismo baten erabiltzaile izatekotan –horrek dakarren iraganaren fetitxizazio eta guzti–, nahiago sinbolo gisa bere hizkuntzaren antzinatasuna darabilena, eta ez duela bost mendeko konkistatzaileak [eztul enlatatuak]. Baina era berean: gutxienez apologisten garaitik dabil jendea paraje hauetan kontu horiei bueltaka eta emaitzak ez dira espektakularrak izan. Probatu behar genuke zerbait diferentea, sikiera 2.000 urte barruko indusketetan ere agertu dadin orduan hitz egingo dutenaren antzekoa izango den hizkuntza honen arrastoren bat. ●

Erantzuna, babesa eta konpromisoa



www.euskadi.eus/isuri

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Zer

er

duzu ulertu nahi?

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak

25

Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU